# PARTIDU ETA LEHIAKETEN ARAUTEGIA

**2024ko abenduko edizioa**

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

**AURKIBIDEA**


| | | Artikulua | Orrialdea |
|---|---|---|---|
| **I. IZENBURUA-** | **DENBORALDI OFIZIALA** | 02 | 4 |
| **II. IZENBURUA-** | **TXAPELKETAK BAIMENTZEA** | | 4 |
| · 1. Kapitulua.- | Txapelketa ofizialak | 03 – 06 | 4 |
| · 2. Kapitulua.- | Kluben eta/edo Lurralde Federazioen araberako lagunarteko norgehiagokak | 07 – 08 | 5 |
| **III. IZENBURUA-** | **PARTAIDETZA ESKUBIDEAK** | | 5 |
| · 1. Kapitulua.- | Orokortasunak | 9-12 | 5 |
| · 2. Kapitulua.- | Uko-egite kasuetako irizpideak | 13 | 6 |
| · 3. Kapitulua.- | Aurretiko lurralde fasetako txapelketa sailkapena | 14 | 6 |
| · 4. Kapitulua.- | Parte-hartzearen betebeharra | 15-17 | 7 |
| · 5. Kapitulua.- | Parte-hartzearen baldintzak | 18-22 | 7 |
| **IV. IZENBURUA-** | **KLUBEN BAT-EGITEA, KIROL ESKUBIDEAK EMATEA ETA KLUB FILIALAK** | | 8 |
| · 1. Kapitulua.- | Kluben bat-egitea | 23 | 8 |
| · 2. Kapitulua.- | Kirol eta Federazio Eskubideen lagapena | 24 | 8 |
| · 3. Kapitulua.- | Klub Filialak | 25 | 9 |
| **V. IZENBURUA-** | **JOKALARIEN ETA OFIZIALEN PARTAIDETZA** | | 10 |
| · 1. Kapitulua.- | Orokortasunak | 26-27 | 10 |
| · 2. Kapitulua.- | Jokalarien eta ofizialen lerrokadura | 28-30 | 10 |
| · 3. Kapitulua.- | Jokalarien lizentzien izapideak | 31-39 | 11 |
| · 4. Kapitulua.- | HAUTATU ezinezko jokalarien lizentziak bideratzea | 40-46 | 13 |
| · 5. Kapitulua.- | Lizentzia ofizialen izapideak (entrenatzailea, laguntzailea, klubeko ofiziala, laguntzailea eta medikua) | 47-48 | 14 |
| · A).- | Entrenatzailea | 49-52 | 14 |
| · B).- | Entrenatzailearen laguntzailea | 53-55 | 15 |
| · C).- | Klubeko ofiziala | 56-61 | 15 |
| | · I.- Taldeko ordezkaria | 62 | 16 |
| | · II.- Zuzendaria | 63 | 16 |
| | · III.- Joko-eremuko ordezkaria | 64-65 | 16 |
| · D).- | Taldeko laguntzailea | 66-68 | 17 |
| · E).- | Medikua | 69-70 | 17 |
| · 6. Kapitulua.- | Jokalarien eta ofizialen bajak | 71 | 17 |
| **VI. IZENBURUA-** | **JOKALARIAK PRESTATZEKO ESKUBIDEAK** | 72-75 | 18 |
| **VII. IZENBURUA-** | **TALDE ERAKETA** | | 20 |
| · 1. kapitulua.- | Gizonezkoen Senior taldeak | 76 | 20 |
| · 2. Kapitulua.- | Emakumezkoen Senior taldeak | 77 | 20 |
| · 3. Kapitulua.- | Talde Jubenilak eta oinarrizko kiroletako taldeak | 78 | 20 |
| **VIII. IZENBURUA-** | **JOKO-EREMUA** | | 20 |
| · 1. Kapitulua.- | Joko-eremuetako baldintzak | 79-91 | 21 |
| · 2. kapitulua.- | Joko-eremuetako ordenarena | 92-96 | 22 |
| **IX. IZENBURUA-** | **PARTIDUAK** | | 23 |
| · 1. Kapitulua.- | Xedapen orokorrak | 97-104 | 23 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| · 2. Kapitulua.- | Uniformetasuna | 105-109 | 24 |
| · 3. Kapitulua.- | Jokatzeko baloia | 110 | 25 |
| · 4. Kapitulua.- | Partiduen datak eta ordutegiak | 111-113 | 25 |
| · 5. Kapitulua.- | Data atzerapenak eta aldaketak eta partiduen etenaldiak | 114-125 | 26 |
| · 6. Kapitulua.- | Joko-eremuetako taldeak erretiratzea | 126-128 | 28 |
| · 7. Kapitulua.- | Taldeen ez-agertzeak | 129-132 | 29 |
| **X. IZENBURUA-** | **TXAPELKETAK** | | 30 |
| · 1. Kapitulua.- | Xedapen orokorrak | 133-134 | 30 |
| · 2. kapitulua.- | Txapelketa motak eta horietako joko-arauak | 135-136 | 30 |
| · 3. Kapitulua.- | Arautegia eta sailkapen irizpideak | 137-143 | 33 |
| · 4. Kapitulua.- | Federazio Ordezkaria | 144-147 | 36 |
| · 5. Kapitulua.- | Txapelketetako berezitasunak | 148-151 | 38 |
| **XI. IZENBURUA-** | **PARTIDUETAKO EPAILEEN JARDUERAREN ARAUTEGIA** | | 38 |
| · 1. Kapitulua.- | Epaileen agintea | 152-155 | 38 |
| · 2. Kapitulua.- | Partiduen zuzendaritza | 156-159 | 40 |
| · 3. Kapitulua.- | Aktak, txostenak eta protestak | 160-167 | 40 |
| **XII. IZENBURUA-** | **NAZIOARTEKO ETA LURRALDE ARTEKO PARTIDUAK** | 168-171 | 42 |
| **XIII. IZENBURUA-** | **GATAZKEN JUDIZIOZ KANPOKO EBAZPENA** | 172-174 | 43 |
| **XIV. IZENBURUA-** | **DOPINAREN KONTROLA** | 175 | 43 |
| | **AMAIERA XEDAPENA** | | 44 |
| | **XEDAPEN INDARGABETZAILEA** | | 44 |

## ATARIKO IZENBURUA: ARAUTEGIKO HELBURUENA ETA APLIKAZIO-EREMUENA

**1. ARTIKULUA-** Partiduen eta Txapelketen Arautegi honen xedea da Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen partidu eta txapelketa ofizialen antolaketarako zein garapenerako arautegi aplikagarria ezartzea, bere Estatutuetako 91. artikuluaren eta Euskadiko Kirol Federaziotako urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren araberako eskumenari jarraiki.

## I. IZENBURUA
## DENBORALDI OFIZIALA

**2. ARTIKULUA-** Jokatzeko denboraldi ofiziala urte bakoitzeko abuztuaren batean hasiko eta hurrengo urteko uztailaren hogeita hamaikan amaituko da.

Hala ere, Euskal Eskubaloi Federazioak, jokatuko den denboraldi ofizialaren etenaldia, aldaketa, hedapena ala murriztea baimentzeko ahalmena izango du ezinbestekoa izaten denean, hori justifikatuko luketen ezohiko baldintzak eta bere gain hartutako kirol konpromezuak tartean izaten direnean, betiere partaideek dituzten eskubideak kaltetu gabe eta horren berri behar adinako aurrerapenarekin emanez.

## II. IZENBURUA
## TXAPELKETEN BAIMENTZEA

### 1. Kapitulua
### TXAPELKETA OFIZIALAK

**3. ARTIKULUA-** Txapelketa Sailak, Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen txapelketa ofizialak hasi baino hamabost (15) egun lehenago gutxienez, txapelketa bakoitzeko oinarri eta arautegiak Lurralde Federazio eta Klub guztiei jakinarazi beharko dizkie.

Oinarri horien betetzea ezinbestekoa da, Arautegi honekiko arau osagarriak direla kontuan hartuta.

Txapelketa oinarriak aldatu ahal izango dira, aurreko artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera.

**4. ARTIKULUA-** Lurralde Federazioek antolatzen dituzten txapelketa ofizialak, autonomia esparruaren baitan parte hartzeko sailkatzea ahalbidetuko dutenak edo talde partaide kopurua erabakitzeko ondorengo eragina izango dutenak, Euskal Eskubaloi Federazioak onartu beharko ditu.

Lurralde Federazioek antolatzen dituzten gainerako txapelketek ez dute Euskal Eskubaloi Federazioaren onarpena beharko eta Txapelketa Sailari jakinaraziko zaizkio informatzeko helburuarekin.

**5. ARTIKULUA-** Txapelketa horiek onartuak izan daitezen, Lurralde Federazioek Euskal Eskubaloi Federaziora (Txapelketa Saila), behar bezala betetako eskaera inprimakia igorri beharko dute, antolatzen duten edozein txapelketa hasi baino hamabost (15) egun lehenago, gutxienez.

Eskaera inprimakiarekin batera Txapelketa Oinarriak eta aurreikusitako egutegia atxiki beharko dira. Era berean, edozein kasutan, Idazkari Nagusiaren edo Lurralde Federaziotako pertsona baimenduaren sinadura adierazi beharko da .

Txapelketa orotako Oinarrietan azalduko dira ospakizun datak, talde partaideak, txapelketa formula, Arautegia eta sailkapen irizpideak hala nola aurreikusitako Txapelketaren garapena zehazteko beharrezkoak diran arau osagarri guztiak.

**6. ARTIKULUA-** Autonomia esparruko txapelketa jardunaldi bakoitzaren ondorengo astean zehar, emaitzak, sailkapen eguneratuak, ospatutako partiduen Akten kopiak eta Txapelketa Batzordeko bileraren inguruko Aktaren kopiak Euskal Eskubaloi Federaziora (Txapelketa Saila) bidali beharko dira.

## 2. Kapitulua
## KLUBEN ETA/EDO LURRALDE FEDERAZIOEN ARABERAKO LAGUNARTEKO NORGEHIAGOKAK

**7. ARTIKULUA-** Klubek, Lurralde Federazioen bidez, baimena eskatu beharko diote Euskal Eskubaloi Federazioari, autonomia-arteko edo nazioarteko esparruko lagunarteko partidu, torneo edo txapelketak antolatzeko orduan, ospakizunari dagokion inprimakia eta tokiaren inguruko informazioa direla medio, 5. artikuluaren araberako agiriekin eta gainerako beharrezko izapideekin**.**

**8. ARTIKULUA-** Hala ere, txapelketa nazioarteko esparruan ospatzen denean, eskaera inprimakia Euskal Eskubaloi Federaziora helarazi beharko da, hasiera data baino hogeita hamar (30) egun lehenago, gutxienez, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzan ere horren berri emanez.

Edozein kasutan, betiere lagunarteko partiduak edo torneoak ospatzen direnean, eta bere ospakizunerako dagokion baimen ofiziala eskatu ondoren, Euskal Eskubaloi Federazioak baimen horren berri emango du Epaileen Batzorde Teknikoan, dagozkion esleipen arbitralak bideratu ahal izateko, edo bere kasuan, beharrezkotzat joko balitz, dagokion Lurralde Batzordea eskuordetzeko.

Ezinbestekoa izango da, Epaileen Batzorde Teknikoak dagozkion arbitroak izenda ditzan; baldintza hori bete ezean, ezinezkoa izango da horietako bakar batek ere partidurik zuzentzea.

# III. IZENBURUA
# PARTAIDETZA ESKUBIDEAK

## 1. Kapitulua
## OROKORTASUNAK

**9. ARTIKULUA-** Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen txapelketetan parte hartzeko eskubidea izango dute, euren sailkapena dela-eta esleituak izan diren taldeak, aurreko denboraldi amaierako banaketa lineala, txapelketa bakoitzeko igoerak edo jaitsierak eta plazak kontuan hartuta.

Txapelketa ofizialetako igoerak eta jaitsierak, txapelketa bakoitzeko oinarri zehatzetan xedatuari jarraiki garatuko dira.

Partaidetza eskubidearekin kontatzeko, ezinbestekoa izango da dagokion Txapelketako izen ematea idatziz egitea, denboraldi ofizial horretako uztailaren 31 baino lehen, hala nola Euskal Eskubaloi Federazioarekin kitatu beharreko zorrik ez izatea, bestela ezinbestekoa bailitzateke aurretiaz horiek kitatzea.
Egoera hori zuzendu ezean, dagokion kategorian parte hartzeari uko egin zaiola ulertuko da.

**10. ARTIKULUA.-** Bere sailkapena edo kategoria kontuan hartuta, edozein txapelketa ofizialetan parte hartzeko eskubidea duten talde guztiek txapelketa bakoitzean izena emateko epea bete aurretik uko egiteko aukera izango dute, Euskal Eskubaloi Federazioan aurkeztutako idatziaren bidez. Uko egitea data horren ondoren aurkezten denean, epez kanpokoa dela kontsideratuko da eta Txapelketa Batzordeari dagokio Diziplinazko Erregimen Arautegiaren arabera horren inguruko erabakia hartzea.

**11. ARTIKULUA.-** Klub guztiek, Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkartean eta Erakundeen Erregistroan eratu, onartu eta inskribatutako Estatutuak izan beharko dituzte.

**12. ARTIKULUA.-** Ez da onartuko bi edo talde homonimo gehiagoren zein Klub bereko taldeen partaidetzarik txapelketa berdinean. Ondorioz, Klubeko bi talde partaide daudenean, hurrengo beheragoko kategoriako taldeak ez du igotzeko aukerarekin kontatuko, nahiz eta horretarako sailkatzera iritsi, eta sailkapen nagusiko segidako taldeak bere tokia beteko du. Irizpide berdinari helduko zaio, talde bat igoera sustapenerako sailkatzen denean. Arrazoi berdinari jarraiki, goragoko kategorian parte hartzen duen taldea bere sailkapena dela medio beheko hurrengora jaitsi beharko balitz, azken kategoria honetan bakarra mantendu ahal izango litzateke.

## 2. Kapitulua
## UKO-EGITE KASUETAKO IRIZPIDEAK

**13. ARTIKULUA.-** Talde batek, denboran eta forman, parte hartzeari uko egiten dionean, ondorengo irizpide taulari helduko zaio, bere tokia bete behar duen taldea hautatzeko orduan:

1.- Gizonezkoen eta emakumezkoen senior kategoriako Euskadiko Txapelketa:

a. Hasteko, hutsune hori kategoria galdu duen taldeak automatikoki bete beharko luke. Bi taldek edo gehiagok eskubide berdin hauek izaten dituztenean, bere Txapelketan lortu duten sailkapenaren ordena jarraituko da.
b. Jarraian, Igoera Ligan parte hartu duen taldea. Bi edo talde gehiagok eskubide hauek izaten dituztenean, lehenik eta behin aipatu Igoera Ligan lorturiko sailkapena jarraituko da.
c. Amaitzeko eta aurreikusi gabeko kasuetan, Euskadiko Federazioko Txapelketa Batzordeak ebatziko du.

2.- Gizonezkoen eta emakumezkoen jubenil eta kadete kategorietako Euskadiko Txapelketa:

d. Hasteko, hutsune hori kategoria galdu duen taldeak automatikoki bete beharko luke. Bi taldek edo gehiagok eskubide hauek izaten dituztenean, bere Txapelketan lortu duten sailkapena jarraituko da.
e. Jarraian, Igoera Ligan parte hartu duen taldea. Bi edo klub gehiagok eskubide hauek izaten dituztenean, aipatu Igoera Ligako sailkapena jarraituko da.
f. Amaitzeko eta aurreikusi gabeko kasuetan, Euskadiko Federazioko Batzordeak ebatziko du.

## 3. Kapitulua
## AURRETIKO LURRALDE FASETAKO TXAPELKETA SAILKAPENAK

**14. ARTIKULUA.-** Lehenengo Lurralde Faseko eta/edo Lurralde arteko talde partaide guztiak aurretiaz ados jarriko dira, sailkatzen direnean, autonomia esparruko txapelketa ofizialetan parte hartzeko, denboraldi bakoitzeko urtarrilaren 20a baino lehen Euskadiko Eskubaloi Federazioan parte ez hartzeko bere asmoaren berri idatziz ematen dutenean izan ezik; horren ondorioz, hurrengo talde sailkatuak parte hartu ahal izango luke.

## 4. Kapitulua
## PARTE-HARTZEAREN BETEBEHARRA

**15. ARTIKULUA.-** Talde guztiek txapelketa osoa jokatzeko hitzarmena onartu dutela ulertuko da, denboran eta forman eginiko uko-egiterik aurkezten ez denean, arautegi honetako 13, artikuluan xedatuari jarraiki.

Ekainaren 30a baino lehen eta gehienez txapelketak hasi baino hogeita hamar (30) egun natural pasatu aurretik suertatzen diren hutsuneak betetzeko orduan, Izenburu honetan aipatu ordezkapen irizpide berdinak aplikatuko dira.

Gainerako kasuetan ez da inolako ordezkapenik burutuko, Txapelketa Batzordeak hitzartu kontsiderazio bereziaren arabera izan ezik.

**16. ARTIKULUA.-** Autonomia txapelketetako talde partaide guztiak behartuta daude, izena emateko orduan, Euskal Eskubaloi Federazioan eskuratu "Txapelketan izena emateko Eskaera" inprimakia betetzera eta hau Txapelketa Sailera igortzera.

Eskaera horretan ondorengo datuak adierazi beharko dira: Talde sailkatuaren Klubeko izen ofiziala, bere izendapen ofiziala, gizarte helbide osoa; telefonoa, helbidea eta posta elektronikoa, federazio Organismo ezberdinen posta, hitzarmenen jakinarazpenak eta ebazpenak igorri ahal izateko, fax zenbakia eta bere kasuan, pertsona jasotzailea, kalea edo plaza, zenbakia, herria, probintzia eta dagokion posta kodea, harremanerako pertsonaren edo pertsonen telefono zenbakia, Klubeko Presidentearen izena eta NAN, partiduen ospakizunerako ohiko kirol instalazioen helbidea, kirol jantzi titularren eta ordezkoen koloreak eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundeen erregistro zenbakia.

**17. ARTIKULUA.-** Txapelketa formula, bere egutegia eta Txapelketa bakoitzeko gainerako datuak, horietako bakoitzeko Oinarri berezietan zehaztuko dira.

## 5. Kapitulua
## PARTE-HARTZEAREN BALDINTZAK

**18. ARTIKULUA.-** Txapelketa bakoitzeko oinarrietan, partaideek ordaindu beharreko urteko partaidetza eta fidantzaren zenbateko ekonomikoak finkatuko dira, bere ordainketarako, banku transferentzia edo taloia direla medio, epemuga txapelketak hasi aurreko uztailaren 31 izanik.

Era berean, klub guztien betebeharra da aurreko paragrafoetan adierazi daten eta kategorien araberako eskumeneko organoen eta gainerako federazio betebeharren arabera dagokion motako zenbateko ekonomikoak asebetetzea.

**19. ARTIKULUA**. – Autonomia esparruko senior txapelketetan parte hartzen duten gizonezkoen eta emakumezkoen senior kategoriako talde guztiek, derrigorrez bere Lurralde Federazioan edo dagokion organismoan inskribaturik genero eta klub bereko jubenil edo kadete kategoriako dagokion talde federatua eduki beharko dute, zeinek denboraldi osoan zehar indarrean dauden arautegiaren eta araudien arabera parte hartuko duten.

**20. ARTIKULUA.-** Autonomia esparruko txapelketa ofizialetako talde partaideen ardurak izango dira, lekualdatze gastuak, egonaldiak, arbitrajea eta oro har, partiduen antolamenduarekin loturiko arlo guztiak.

**21. ARTIKULUA.-** Txapelketako partidu ofizial bakoitzaren ondoren, Klub bakoitzak igorri ahal izango du Euskal Eskubaloi Federazioko Epaileen Batzorde Teknikora, arbitro bakoitzaren banakako jardueraren inguruko idatzizko txostena, xede horretarako banatutako inprimakien bidez; bertan, euren jardueran erabakigarriak izan diren ohartarazpen guztiak eta bikote arbitralaren portaera globalaren gertaerak azaldu beharko dira.

**22. ARTIKULUA.-** Ekainaren 30ean euren federazio konpromisoak eta gainerako eskubaloi estamentuekin eginiko hitzarmenak asebete ez dituzten Kluben betebeharra da:

Dagokion kategorian baja ematea, ondorioz bere zorraren likidazio formala egin arte inolako kategorian parte hartu ezin izanik.

Hori guztia, hartzekodunen eskubideei utzi gabe, Kirol Txapelketa eta Diziplinazko Batzordearen aldeko txostenaren eta kasu zehatzen azterketa egin ondoren burutu ahal izango da.

Kluben batek Estamenturen batekin zorrak kitatu gabe izaten dituen bitartean, Euskadiko Federazioak hari ez dio inolako lizentzia berririk igorriko. Zor horiek Txapelketa Batzordean egiaztatuko dira.

## IV. IZENBURUA
## KLUBEN BAT-EGITEA, KIROL ESKUBIDEAK EMATEA ETA KLUB FILIALAK

### 1. Kapitulua
### KLUBEN FUSIOA

**23. ARTIKULUA.-**

1. Klubak euren kirol jardueraren onura bilatuz elkartu ahal izango dira, indarrean dagoen legeriaren arabera, Eusko Jaurlaritzako 162/2010 Dekretuaren X. kapituluan xedatu bezala. Bat-egite hauek gehienez ekainaren 30era arte burutuko dira eta epe horretatik kanpo egiten direnak, ondorengo denboraldira arte ez dira federazio xedeetarako erabiliko.
2. Kirol klub berri batekin bat-egiteko asmotan dabiltzan kirol kluben kasuan, bat-egite proiektua dagokien batzorde nagusiek onartu beharko dute, estatutuak aldatzeko xedatu eskakizunen arabera.
3. Klub berri bat eratzeko bidea emango duen kluben bat-egiteari dagokionez, klub berria eratzeko ohiko eskakizunak bete beharko dira, sortzaileen gutxieneko kopurua alde batera utzita, sormenerako akta bat-egite proiektuaren baitan hartzea beharrezkoa izanik. Hipotesi horren arabera, bat-eginiko klubak desegingo dira eta bat-egiteak klub berriarekin atxikitako kluben ondare multzoa eskualdatzea inplikatuko du.
4. Xurgapenari dagozkion klubek bat-egitean, xurgatu kirol kluba edo klubak soilik desagertuko da/dira. Xurgapenak, klub xurgatzailearekin atxiki kluba edo klub multzoa eskualdatzea inplikatuko du.

### 2. Artikulua
### KIROL ETA FEDERAZIO ESKUBIDEEN LAGAPENA

**24. ARTIKULUA.-** Euskal Eskubaloi Federazioan antolatu txapelketetako talde partaideekin kontatzen duten klubek euren kirol eta federazio eskubideak eskuordetu edo eman ahal izango dituzte, betiere lagapen horretan ondorengo eskakizunak betetzen direnean:

1.- Lagapena uztailaren 1a baino lehen gauzatzea. Epe horretatik kanpo egiten direnak, ondorengo denboraldira arte ez dira federazio xedeetarako erabiliko.

2.- Beharrezkoa izango da agiri publikoaren edo pribatuaren bidez gauzatzea; bere lehenengo kopia edo kopia baimendua Euskal Eskubaloi Federaziora helarazi beharko da uztailaren 1a baino lehen, ondorengo zirkunstantziak kontuan hartuta:

a) Kluben, lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen arteko hitzarmena, Zuzendaritza Batzordeak eta/edo kideen Batzorde Nagusiak behar bezala baimendua, euren estatutuetan xedatuaren arabera.
b) Lagapena egiteko arrazoia.
c) Klub lagatzailearen egoera ekonomikoa.
d) Klub lagatzaileak kategoria ezberdinetako taldeekin kontatzen duenean, lagapen horrekin loturiko hura edo haiek mintzatu beharko da/dira.

3.- Eginiko lagapena onartzea.

4.- Lagapen hori ez da lege xedeetarako erabiliko, ezta indarrean jarriko ere, erakunde lagatzaileko lagapen-hartzailearen aldetik likidatuak izaten ez diren bitartean, eskubaloiko gainerako estamentuekin adostu

federazio eskubide eta hitzarmen guztiak eta behin-betiko taldeen kirol eta federazio eskubide guztiak hartuko ditu barne, baita bere eskubide guztiak ere, hau da, fidantzak, abalak, bermeak, etab.

5.- Erakunde lagapen-hartzaileak espresuki eginiko zorren onarpena eta bere subrogazioa, enpresa lagatzailearen eskubide eta betebehar guztiak kontuan hartuta.

6.- Ez da inolako lagapenik onartuko zeinetan Klub lagatzaileak etorkizuneko eskubideen inguruko erreserba egingo duen.

7.- Euskal Eskubaloi Federazioko Txapelketa eta Kirol Diziplinazko Batzordearen lagapena egiteko onarpena.

## 3. Kapitulua
## KLUB FILIALAK

### 25. ARTIKULUA.-
1) Klubek euren artean filialtasun hitzarmenak egin ahal izango dituzte, ondorengo premisen arabera:

a. Klubak Lurralde Federazio berekoak izan beharko dira.
b. Babesleak babestuak baina maila altuagoa izango du.
c. Babesleak eta filialak ez dute izendapen berdina izango.
d. Babesleak eta babestuak dagozkien administrazio organoek espresuki emandako baimena eskuratu beharko dute, Euskal Eskubaloi Federazioan horren berri ematea ahaztu gabe.
e. Filialtasun harremana denboraldi berriaren hasieran formalizatu eta onartu beharko da, eta klub babesleak parte hartuko duen txapelketa hasi baino hilabete lehenago, gehienez.
f. Filialtasun harreman hori idatziz formalizatuko da, klub eraginetako Presidenteen sinadura dakarren agiri publikoa edo pribatua dela medio; bere lehenengo kopia edo kopia baimendua Euskal Eskubaloi Federaziora helarazi beharko da.

2) Filialtasun hitzarmenean espresuki bere iraupena azaldu beharko da, hitzarmenaren epemuga iristean filialtasun data iraungi dela ulertuz. Harremana luzatu nahi izango balitz, klub eraginek bere baldintzatzaile guztiekin filialtasun hitzarmen berria sinatu beharko lukete.

3) Filialtasun hitzarmena ez du ebatziko alderdi horietako batek, ezta alderdi biek ere, denboraldian zehar. Ebatzi ahal izango da, denon hitzarmenaren arabera, hitzartu epemuga iritsi eta kirol denboraldiaren amaiera baino lehenago.

4) Klub filialetako taldeak betiere bere babesleen mendean aurkituko dira, ondorioz, babeslea haren kategoriara jaisten denean, klub filialeko taldea ere jaitsi egingo da, hurrengo beheragoko kategoriara. Bestalde, talde filial bat ezin izango da goragoko kategoria batera igo, bertan klub babesleko talde bat partaide izaten denean. Klub filialen arteko igoeren eta jaitsieren inguruko zuzeneko inplikazio kasu hauetan, filialtasun hitzarmenaren ebazpena ez da kontuan hartuko.

5) Klub babesleak ez du klub filial bat baino gehiagorekin kontatu ahal izango.

6) Beste bateko filiala den klub batek ezin izango du klub filialekin kontatu.

8) Euren arteko filialtasun harremanik ez da onartuko, jubenil eta kadete kategoriako taldeen kasuan.

9) Klub babesleak bere senior kategoriako taldetan klub filialeko jokalariak erabili ahal izango ditu, jokalari hori/horiek talde babesleko jokalaria/k baino beheragoko kategoria batekoa/k izan beharko dela/direla kontuan hartuta, eta Euskal Eskubaloi Federazioko arautegian xedatu eskakizunak konplituz.

Klub filialak bere senior taldetan klub babesleko jokalariak erabili ahal izango ditu, bere jokalaria talde filialarekiko beheragoko kategoria batekoa izan beharko dela kontuan hartuta, eta ezinbestekoa izango da

taldeen eraketarako kupo gehigarriari dagokionez Euskal Eskubaloi Federazioko arautegian xedatu eskakizunak konplitzea.

## V. IZENBURUA
## JOKALARIEN ETA OFIZIALEN PARTAIDETZA

### 1. Kapitulua
### OROKORTASUNAK

**26. ARTIKULUA.-** Autonomia txapelketa guztietako talde partaideek partidu ofizial bakoitzean gutxienez hamabi (12) jokalarirekin eta gehienez hamalaurekin (14) kontatu beharko dute, aktan horien guztien berri emanez.

Halaber, derrigorrez kontatu beharko dute titulu Nazionalaren edo Lurralde tituluaren jabe den Entrenatzailearekin eta bi (2) Taldeko Ofizialekin, Talde Ordezkariaren eta Joko-eremuko Ordezkariaren funtzioak betetzeko. Era berean, Talde Laguntzailearen, Entrenatzaile Laguntzailearen eta Medikuaren lizentzia eskuragarri izan beharko dute, hala badagokio.

Kategoria bakoitza eratzen duten jokalarien adin taula urtero argitaratuko da, Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen duen txapelketa bakoitzeko oinarrietan.

**27. ARTIKULUA.-** Klub jakin baten aldeko jokalarien, entrenatzaileen eta entrenatzaile laguntzaileen lizentzia denboraldi bakarrerako erabili ahal izango da, klubarekiko existitzen diren konpromezu hitzarmenak alde batera utzita.

### 2. Kapitulua
### JOKALARIEN ETA OFIZIALEN LERROKADURA

**28. ARTIKULUA.-** Jokalariak txapelketa ofizialeko partiduetako Klub batekin behar bezala lerrokatu ahal izateko, beharrezkoa izango da:

a) Arautegiaren arabera izena emateaz gainera lerrokatu ahal izateko Klubaren aldeko lizentziaren jabe izatea; edo bestela, izena emateko agiriak aurkeztean, hauek arautegiaren araberakoak izanik, Euskal Eskubaloi Federazioak baimenduak izan beharko lirateke.

b). Jokalari nazionalentzat, komunitateko kontratatuentzat eta Europako Ekonomia Esparruko jokalari kontratatuentzat, federazio inskripzioa txapelketa amaitu baino hilabete lehenago egin ahal izango da, hasierako talde berdinak partaide izaten diren bitartean, Igoera Faseak eta/edo sustapenak kontuan hartu gabe. Epe hori, txapelketa sistematik kanpokoa izango da, honen garapenari dagokionez. Halaber epea ez dute eragingo, txapelketa hasten den unetik aurrerako balizko uko-egiteek edo deskalifikazioek.

Igoera faseak edo sustapen partiduak fase osagarritzat hartuko dira, ondorioz, izena emateko epemuga aurreko faserako finkatuarekin egokituko da, jokalarien inskripzio epea hedatu gabe.

c) Federazio-zigorrarekin loturarik ez izatea.

d) Aurretiko aukerako irizpenaren araberako gaitasun fisikoan akatsik ez aurkitu izana edo ez ziurtatu izana, argi eta garbi, bere adina ez dela xedapen ofizialen arabera eskatzen dena.

e) Denboraldiaren aurretik beste Klub batekin lerrokatuak ez izatea, txapelketa ofizialeko partiduetan, Izenburu honetan aurreikusi kasuetan izan ezik.

f) Federazio lizentziarekin ez kontatzea edo denboraldi berdinean eskuragarri izatea entrenatzailearen eta entrenatzaile laguntzailearen lizentzia, taldeko ofiziala, talde edo zuzendari laguntzailea, klub berekoak

izaten direnean izan ezik. Era berean, jokalari batek baja eragin lezake talde batean, eta talde horretako edo klub bereko beste batean, entrenatzaile, laguntzaile edo ofizial lizentzia tramitatu, kasu bakoitzean dagozkion eskakizunak errespetatzea zainduz.

g) Lizentziak aurkezteko epeak alde batera utzita, xedatuaren arabera jokalarien behar bezalako lerrokadura eratzeko, Klubak aseguru konpainiak finkatu dituen epeez arduratuko dira, prestazioak indarrean jarri ahal izateko.

**29. ARTIKULUA.-** Txapelketa hasteko datatik hogeita hamar (30) egun pasatu direnean, ezin izango da jokalari bakar bat ere lerrokatu partidu ofizialean, hura hasi baino lehen partiduko epaileen lizentzia aurkezten ez duenean; Lizentzia ez aurkezteko, eskumeneko organoak aztertu beharreko justifikazioak daudenean, nahikoa izango da Nortasun Agiri Nazionala edo Pasaportea aurkeztea, datu horiek dagokion partiduko aktan azaltzea beharrezkoa izanik.

**30. ARTIKULUA.-** Taldetako ofizialak partiduetako aktan azaltzeko eta partiduetako euren eskumenak bete ahal izateko, jokalarientzat finkatu eskakizunak errespetatuko dira, 28. artikuluko d) paragrafoan xedatua izan ezik.

## 3. Kapitulua
## JOKALARIEN LIZENTZIEN IZAPIDEAK

**31. ARTIKULUA.-** Kategoria ezberdinetako jokalarien lizentzien izapideak ondorengo arauen arabera burutuko dira:

a) Euskal Eskubaloi Federazioek jokalarien lizentziak bideratuko dituzte, Euskal Eskubaloi Federazioko Federazio Lizentzien arauak jarraituz.

**32. ARTIKULUA.-** Lizentzien gutxieneko kopurua, talde batek derrigorrez txapelketa bat hasi aurretik bideratu behar duena, Kirol Denboraldi bakoitzerako indarrean dagoen Txapelketa Arautegian eta Oinarrietan xedatuko da.

**33. ARTIKULUA.-** Jokalarien lizentziak bideratzeko orduan aurkeztu beharko dira**,** Euskal Eskubaloi Federazioko Federazio Lizentzien Arautegian adierazten diren epetan eta moduan, Euskadiko Kirol Federazioen Dekretuan xedatuaren arabera.

**34. ARTIKULUA.- JOKALARI ALDAKETAK.**
Dagokion federazio baja bideratzeko orduan Klub guztiak hiru jokalari aldatzera baimenduko dira. Aldaketa hauek betiere txapelketa bakoitzerako finkatu fitxaketa epean burutuko dira, fitxaketa kupoa estalita dagoenean.

Fitxaketa epea amaitzean, ezinezkoa izango da inolako aldaketarik egitea.

Kategoria guztietan, ezinezkoak eta Komunitatekoak ez diren edo kontratatu gabeko Komunitateko jokalarien plaza bakoitza aldatzea ahalbidetuko da, baldintza berdineko beste plaza baten ordez, txapelketa bakoitzeko finkatu fitxaketa epeak kontuan hartuta.

**35. ARTIKULUA.-** Jokalari bati, bere borondatez egin duen eskariaren arabera, Klubaz aldatzeko baimena ematen zaionean, federazio lizentzia dela medio, baimen hori dagokion taldea jatorrizko kategoria ez den beste batean inskribatuta dagoenean emango zaio. Jokalari horiek, bajak ematen dituen Klubeko lizentzia zenbaketaren baitan azalduko dira.

Ez zaio Klubaz aldatzeko baimenik emango jadanik kategoria bereko beste klub batean lerrokatua izan den jokalari bati.

**36. ARTIKULUA.-** Jokalari batek lizentzia lehenengo aldiz sinatzen duenean, askatasuna izango du nahi duen Klubaren izenean egiteko, baina inskripzioa egiten denean, ezinezkoa zango da fitxaketa beste klub batekin egitea, betiere Arautegi honetako baldintzak jarraitu behar izanik, inskripzioa bere borondatez egitean xedapenak ere onartu behar izan dituenez.

**37. ARTIKULUA.-** Jokalari bat, denboraldi baterako edo gehiagorako talde batekin bideratutako konpromezua eduki arren, denboraldi ofizial osoan zehar partidu bakar batean ere lerrokatua izan ez denean, beste talde batekin lizentzia berria bideratzeko moduan izango da, kategoria berekoa izan arren, betiere lizentzia berria bideratzeko eta jatorrizko taldeko baja emateko finkatu baldintza guztiak betetzen dituenean.
Aipatu guztia alde batera utzita, denboraldi osoan zehar klub batekin partidu ofizial batean lerrokatua izan ez den jokalariari ofiziozko baja emango dio, jokalariak hala eskatzen duenean, fitxan sinatu dituen urteak alde batera utzita.

**38. ARTIKULUA.-** Jokalari bat Klub batekoa izango da, bertako edozein talderekin hartutako konpromezua denboraldi-kopurua kontuan hartuta, taldearen kategoria aldatzen bada ere jokalariak sinatu duen denboraldi kopuruan zehar.

**39. ARTIKULUA.-** Klub batek bere taldeak txapelketatik erretiratzen dituenean, partaidetzari uko-egiteko xedatu epeak alde batera utzita, talde horretan indarrean dauden lizentziak ofizioz ezabatuko dira, betiere jokalariak idatziz hala eskatzen duenean, bere kasuan txapelketa berean parte hartuko ez duen beste talde batekin lizentzia berria eskatu ahal izanik eta haren izapideak egiteko epemuga errespetatuz. Klub batek bere talde guztiak erretiratuko balitu, indarrean leudekeen lizentziak automatikoki ezabatu egingo lirateke, jokalari eraginen kasuan aurretiaz aipatu taldeekin eta epemugak kontuan hartuta lizentzia berria bideratzea zilegi izanik.

## 4. Kapitulua
## HAUTATU EZINEZKO JOKALARIEN LIZENTZIAK BIDERATZEA

**40. ARTIKULUA.-** Atzerriko jokalariak (hautatu ezinezkoak) komunitatekoak edo komunitatetik kanpokoak izan ahal dira, dagokien jatorrizko herrialdea Europar Batasunekoa izan edo ez. Komunitateko jokalariak kontratatu ahal izango dira edo ez; komunitateko kontratatuek jokalari nazionalen eskubide eta betebehar berdinekin kontatuko dute, Estatu Selekziotan parte hartzeko orduan izan ezik.

Era berean, Hitzarmena Europako Ekonomia Esparruan sinatu duten herrialdetako jokalari kontratatuek, komunitateko jokalari kontratatuen eta nazionalen eskubide eta betebehar berdinekin kontatuko dute, Estatuko Selekziotan parte hartzeko orduan izan ezik.

Autonomia txapelketetan, klub bakoitzak talde bakoitzeko komunitateko edo komunitatetik kanpoko jokalari atzerritar bat (hautatu ezinezkoa) eskuragarri izatea eta lerrokatzea baimenduko da.

Kadete kategoriara arte, hau barne, ez dago inolako mugarik atzerriko jokalarien (hautatu ezinezkoak) lizentziak emateko orduan.

**41. ARTIKULUA.-** ezinezko jokalariaren fitxaketarako jarraitu beharreko izapideak dira ondoren adierazten direnak:

1.- Klub interesdunak transferentzia eskatzen du, xede horretarako behar bezala betetako eta kasu bakoitzean dagokion agiriekin lagundutako inprimakiaren igorpena dela medio.

2.- Transferentzia jasotzean, dagokion fitxaren izapideak egingo dira, Arautegi honetako 31-39 artikuluetan xedatuari jarraiki.

**42. ARTIKULUA.-** Europako ekonomia esparruko komunitateko jokalari kontratatu edo kontratatu gabeko HAUTATU ezinezko jokalarien lizentziak bideratzeko epemuga, arautegi honetan gainerako jokalarientzat finkatzen den berdina izango da.

**43. ARTIKULUA.-** Dagokion lizentzia ezabatzeari ekin aurretik (baja emateko arautegiaren araberako izapideak eginez), eskumeneko organoak hautatu ezinezko eta komunitatetik kanpoko edo kontratatu gabeko komunitateko jokalaria Europako ekonomia esparruko kontratatutako edo kontratatu gabeko komunitateko nazional edo hautatu ezinezko batengatik ordeztea onartu ahal izango du, xedatu baldintzen arabera, gainerako denboraldi epean adierazi plaza galduz.

Kategoria guztietan, hautatu ezinezko, komunitateko edo komunitatetik kanpoko, kontratatu gabeko jokalarien plaza bakoitza hautatu ezinezko komunitateko edo komunitatetik kanpoko, kontratatu gabeko beste jokalari batengatik ordeztea ahalbidetuko da, jokalarien fitxaketetan finkatu epeak kontuan hartuta.

**44. ARTIKULUA.-** Atzerriko jokalari batek (hautatu ezinezkoak), komunitatekoa ez denak, Espainiako, komunitateko herrialde bateko, Europako ekonomia esparruan hitzarmena sinatu duen herrialde bateko nazionalitatea eskuratzen duenean edo komunitatekoa izatea lortzen duenean, kirol denboraldian zehar, jokalari nazional baten eskubide eta erantzukizun berdinak izango ditu; bere klubari dagokio komunitatetik kanpoko edo komunitateko atzerriko jokalariaren (hautatu ezinezkoa) lizentzia berria bideratzea, dagokion talde eraginak kontratatu ez duenean, betiere hemen plaza librea dagoenean eta bere izapideak egiteko beharrezko eskakizunak hala nola aurreikusi epeak betetzen direnean.

**45. ARTIKULUA.-** Arautegi honetako 42. artikuluan xedatu epea kontuan hartuta eta senior fitxa kopurua estaltzean, ezinezkoa izango da hautatu ezinezko, komunitatetik kanpoko edo kontratatu gabeko komunitateko jokalari nazional bati baja ematea, Europa esparruko kontratatutako edo kontratatu gabeko komunitateko jokalari nazional bat fitxatzeko.

**46. ARTIKULUA.-** Hautatu ezinezko jokalariak, bere adinaren arabera, Arautegi honetako 28. artikuluan zein ondorengotan eta dagokion txapelketako arauetan xedatu eta baimendutako jokalari kopuruaren baitan kontsideratuko dira.

## 5. Kapitulua
## LIZENTZIA OFIZIALEN IZAPIDEAK
## (ENTRENATZAILEA, ENTRENATZAILEAREN LAGUNTZAILEA, KLUBEKO OFIZIALA, TALDE LAGUNTZAILEA ETA MEDIKUA)

**47. ARTIKULUA.-** Kategoria ezberdinetako ofizialen fitxa izapideak jokalarien inguruko 31. artikuluan xedatu bezala bideratuko dira, txapelketaren edozein unetan.
Jokalarien lizentziekin batera derrigorrez aurkeztu beharko dira, bideratuak izan daitezen, ondorengo lizentziak: Entrenatzailearena, klubeko Ofizialen bi lizentzia (Joko-Eremuko Ordezkariarentzat eta Taldeko Ordezkariarentzat).

**48. ARTIKULUA.-** Autonomia txapelketetako ofizialen lizentziak dagokion Lurralde Federazioak bideratuko ditu, indarrean dagoen arautegiari jarraiki Euskal Eskubaloi Federazioak eman ditzan.

### A) ENTRENATZAILEA

**49. ARTIKULUA.-**

1. Txapelketa ofizialaren hasieran talde guztiek Entrenatzaile titular baten zerbitzuekin kontatu beharko dute, hau da, behar bezala igorritako federazio lizentziaren edo gutxienez dagokion Lurralde Federazioaren baitan bideratua izaten ari den lizentziaren jabe den eta Kategoria Nazionaleko edo Autonomia Kategoriako Tituluarekin kontatzen duen Entrenatzaile baten zerbitzuekin.

2. Hori horrela, partiduan parte hartzen ari den taldearen klub bereko beste hainbat Entrenatzaile aulkian eseri ahal izango dira. Kasu horretan, bere lizentziari dagokion taldea ez den beste batean Entrenatzaile funtzioak bete ahal izateko, dagokion txapelketan eskatzen den titulazioaren jabe izan beharko da.

**50. ARTIKULUA.-** Talde batek, bere Entrenatzailearen fitxa indarrean dagoen epean zehar, ezin izango du beste izapiderik burutu alderdien aurretiko hitzarmenik gabe, eta hitzarmenik egingo ez balitz, Txapelketa Batzordea izango litzateke erabakia hartuko lukeena, aurretiko informazio eskaerarekin. Txapelketaren gainerako epean bere jarduera bete ezin izango lukeen entrenatzailearen behin-behineko zigorraren kasuan soilik, betiere barne hartzeko hilabete bat (1) faltatu aurretik gertatzen denean, talde inplikatuak bere entrenatzailearen federazio lizentzia beste batengatik ordeztu beharko du, arautegiaren araberako eskakizunak konplituz.

Entrenatzaile bati, borondatezko eskaerari jarraiki, klubaz aldatzeko baimena ematen zaionean, federazio lizentzia dela medio, baimen hori esklusiboki eskuratu ahal izango da, parte hartuko duen taldea jatorri ezberdineko beste kategoria batean inskribatzen denean.

**51. ARTIKULUA.-** Bere txapelketako partaidetza hastean talderen batek Entrenatzailearen lizentziaren jabe izateko betebeharra indarrean izateari utziko balio, zirkunstantzia hori eragin duten arrazoiak edonolakoak izanik, anomalia hori konpontzeko hiru jardunaldi izango ditu erabilgarri, talde guztiek gainerako lizentziekin batera Entrenatzailearen lizentzia bideratzeko izan dezaketen betebeharrari utzi gabe, Arautegi honetan xedatuaren arabera.

**52. ARTIKULUA.-** Entrenatzaile guztien betebeharra da, ezinbestekoa denean izan ezik, bere taldeko partiduetara joatea eta joko-eremuan presente egotea, aktan jasota gera dadin.

## B) ENTRENATZAILEAREN LAGUNTZAILEA

**53. ARTIKULUA.-** Talde guztiek Entrenatzaile Laguntzailearen zerbitzuekin kontatzeko baimena dute; gutxienez, monitorearen titulua eta behar bezala igorritako federazio lizentziarekin edo behintzat dagokion Lurralde Federazioaren baitan bideratua izaten ari den federazio lizentziarekin kontatu behar dute.

**54. ARTIKULUA.-** Entrenatzaile Laguntzailearen lizentziaren jabe den teknikariak entrenatzaile titularraren lizentzia bideratu ahal izango du, betiere beheragoko kategorian parte hartzen duen eta dagokion titulazio erabilgarriarekin kontatzen duen Klub bereko talde baten aldekoa izaten denean.

Taldetako Entrenatzaileak eta Entrenatzaile Laguntzaileek, Klub bereko gainerako taldetan taldeko Entrenatzaile, Entrenatzaile Laguntzailearen funtzioak betetzeko baimena izango dute, betiere ordezten ari diren pertsonek lizentziarik aurkezten ez dutenean; baina kontuan hartu beharko da, talde jakin bateko Entrenatzaile funtzioak betetzeko beharrezko titulazioa, kategoria hartarako titulazioa erabilgarri izaten ez denean jarduera betetzea ezinezkoa izanik.

**55. ARTIKULUA.-** Entrenatzaile titularra falta izaten denean, dagokion justifikazioa dela medio, Entrenatzaile Laguntzaileak hura bere funtziotan ordeztu ahal izango du eta, edozein kasutan, partiduetan zehar jokalarien eta ofizialen aulkian eseri ahal izango da.

## C) KLUBEKO OFIZIALA

**56. ARTIKULUA.-** Talde partaide guztiak behartuta daude, izena emateko orduan, "Klubeko Ofizialaren" bi (2) lizentzia bideratzeko eskatzera, jokalarien eta Entrenatzailearen lizentziekin batera.

Klub batek bere talde bakoitzerako eskatu ahal duen "Klubeko Ofizialaren" lizentzien gehieneko kopurua bostekoa (5) da.

**57. ARTIKULUA.-** "Klubeko Ofizialaren" lizentziaren jabea Taldeko Ordezkariaren edo Joko-Eremuko Ordezkariaren funtzioak betetzeko prestatuta dago, ondorioz, pertsona berdinak partidu ofizial bakoitzean ez du funtzio bat baino gehiago bete ahal izango.

**58. ARTIKULUA.-** Partidu ofizialetan, horietako bakoitzeko talde partaideek euren epaileen jakinaren gainean jarri beharko dute "Klubeko Ofiziala" lizentziaren jabe den titular bakoitzak bete beharko duen funtzioa, lizentziak aurkezteko unean.

**59. ARTIKULUA.-** "Klubeko Ofiziala", jokalarien eta ofizialen aulkian eseri ahal izateko, derrigorrez dagokion lizentziaren jabe izan beharko da.

**60. ARTIKULUA.-** Behar bezala bideratutako fitxaren jabe den "Klubeko Ofiziala" Taldeko edo Joko-Eremuko Ordezkari bezala jardun ahal izango da talde guztietan, horien kategoria edozein dela ere, Klub bereko taldeak izanik, eta bere lizentziaren jatorria alde batera utzita.

**61. ARTIKULUA.-** "Klubeko Ordezkariak" partidu batean bete beharreko funtzioak, bertan beteko duen karguari dagozkion ezinbestekoak izango dira; aurretiaz epaileen jakinaren gainean jarriko dira, ondorengo artikuluetan zehaztuak izanik.

## I.- TALDEKO ORDEZKARIA:

**62. ARTIKULUA.-** Talde guztiek "Taldeko Ordezkariaren" zerbitzuekin kontatu beharko dute jokatzen duten partidu guztietan; Partiduaren Aktan bertan izan direla jasota geratu beharko da; horretarako Klubak bere Ofizialaren lizentzia bideratu beharko du.

Partidu bakoitzean "Klubeko Ofizialaren" lizentziaren titular bakarrak bete ahal izango ditu Taldeko Ordezkariaren funtzioak.

## II.- ZUZENDARIA

**63. ARTIKULUA.-** "Klubeko Ofizialaren" lizentzia behar bezala bideratzen duen pertsonak Klubeko Zuzendaria bailitzan bezalako kontsiderazioa izango du, lizentzia horretarako bideratu balitz bezala eta Arautegi honetan taldeko edozein kiderentzat xedatu bezalako eskubide eta betebehar berdinekin kontatuko du, eta diziplinari dagokionez, Diziplinazko Erregimen Arautegian xedatuaren arabera zigortua izango da, arau-hausteak egiten dituenean.

## III.- JOKO-EREMUKO ORDEZKARIA

**64. ARTIKULUA.-** Egutegiaren arabera partiduaren antolamendua dagokion talde baten partidu guztietan, honek Joko-Eremuko Ordezkariarekin kontatu beharko du; bere funtzioak beteko ditu "Klubeko Ofizialaren" lizentzia behar bezala bideratua duen edozein pertsonak, zein Entrenatzailea, Entrenatzailearen Laguntzailea, Laguntzailea edo Medikua, edo Taldeko Ordezkaria inola ere ezin izango den.

Partidu batean "Klubeko Ofizial" bakarra aurkezten denean, honek Joko-Eremuko Ordezkariaren funtzioak beteko ditu, aulkian bere ordezkorik egotea ezinezkoa izanik. Partiduan zehar, Joko-eremuko "Klubeko Ofiziala"k bere postua beteko du, ohar-hartzaile eta kronometratzailearen mahaiaren alboan eta partiduan zehar ez da handik altxatuko, bere jardueraren ondorioz bere presentzia beste nonbait beharrezkoa izaten denean izan ezik.

**65. ARTIKULUA.-** Joko-Eremuko Ordezkariaren funtzioak betetzen duen "Klubeko Ofizialaren" betebeharrak dira:

- Arbitroak aurkeztea, hauek joko-eremura etortzen direnean eta bere ardurapeko aginduak betetzea, partiduaren aurretik edo partiduan zehar, joko-eremuko marratuaren akatsak zuzentzeko, sareak jartzeko, kirola hobeto zaintzeko Indar Publikoa banatzea, etab.
- Era berean talde aurkaria eta federazio ordezkaria aurkeztea, bere kasuan, partidua hasi aurretik, horien esanetara jartzeko.
- Eragoztea, joko-eremua eta ikusleen esparrua bereizten duten lerroen artean baimendu gabeko edonor finkatzea. Era berean, Arautegi honetako "eragin-gunean" xedatua errespetatu araztea.
- Epaileen baimenarekin kontatzen ez duten pertsonak epaileen aldageletan sartzea saihestea.
- Gobernu Agintariaren ordezkariarekin eta zerbitzuko Indar Publikoaren Buruarekin kolaboratzea, partiduaren hasieran horien aurkezpena eginez, ordena bermatzeko, partiduaren garapen normala ahalbidetzeko eta bere ospakizunaren aurretik, bitartean eta jarraian jazotzen den edozein gertaera saihestea.
- Arbitroak bere aldagelara laguntzea, bai lehen denbora amaitzean eta bai partidua amaitzean eta era berean talde bisitaria edo epaileak joko-eremutik euren ostaturaino laguntzea, baita babestuta egoteko komeni den tokira ere, ikusleen jarrerak hala eskatzen duenean.
- Indar Publikoaren babesa eskatzea, epaileen errekerimenduen edo euren ekimen propioaren arabera, zirkunstantziek hala gomendatzen dutenean.

## D) TALDEKO LAGUNTZAILEA.

**66. ARTIKULUA.-** Talde guztiek Laguntzaile bat (Medikua, Fisioterapeuta, etab.) esleitu ahal izango dute, dagokion lizentziaren konplimendua dela medio.

Taldeko Laguntzailea falta denean, aulkian beste norbait eseri ahal izango da bere ordez, betiere hura behar bezala bideratutako Klubeko Ofizialaren lizentziaren jabe izaten denean.

**67. ARTIKULUA.-** Ezinbestekoa izango da jokalarien eta ofizialen aulkian iraun ahal izateko, dagokion lizentziaren jabe izatea.

**68. ARTIKULUA.-** Taldeko Laguntzailearen kargu-uztea jazotzen denean eta baja ofizialki eman aurretik, Klubak beste norbaiten aldeko lizentzia berria eskatu ahal izango du.

## E) MEDIKUA

**69. ARTIKULUA.-** Talde guztiek Mediku kolegiatu baten zerbitzuekin kontatu ahal izango dute; horretarako, jokalariek eta ofizialek izena emateko eta Euskal Eskubaloi Federazioaren lizentziak aurkezteko unean dagokion lizentziaren izapideak eskatu beharko dituzte; Denboraldiko gehienez hiru (3) lizentzia aurkeztu ahal izango dira. Hiru Medikuetako edozein beste batekin ordeztu ahal izango da, aurretiko haren baja ematea bideratzean, Arautegi honetako 70. Artikuluan aurreikusi bezala eta bere aldeko lizentzia berriaren eskaera egitean.
Xede horretarako, talde batek partidu batean ofizialen bost (5) lizentzia aurkeztu ahal izango ditu, betiere horietako bat Medikuarena izaten denean. Partiduko epaileak hori aktan jasota geratu dadin arduratuko dira.

Aldaketa-gunearen inguruko Arautegian aurreikusi xehetasun guztiak halaber ofizial honi dagozkio, baita jokalarien eta ofizialen aulkian irauteko federazio lizentziaren jabe izateko betebeharra ere.

Medikuaren lizentzia bideratu ahal izateko, Arautegi honetako 31. artikuluan aurreikusi agiriez gainera, "Medikuntzan Lizentziatuaren" lanbide agiriaren fotokopia edota interesduna kolegiatua dela egiaztatzen duen Medikuen Elkargo Ofizialak emandako agiria ekarri beharko dute.

**70. ARTIKULUA.-** Mediku berdinak lizentzia bideratu ahal izango du denboraldi berean Autonomi Erkidego bereko Klub batean edo gehiagotan, eta jarduera honetan mantendu ahal izango da, betiere Klub bereko taldea izaten denean, jardunaldi berdinean lerrokatu ahal izanik.

## 6. Artikulua
## JOKALARIEN ETA OFIZIALEN BAJAK

**71. ARTIKULUA.-** Jokalarien, entrenatzaileen eta ofizialen bajak bideratzeko, dagokion Lurralde Federazioan xede horretarako eratu inprimaki berezia aurkeztu beharko da.

Aurreko atalean aipatu inprimakia behar bezala betetzean, Lurralde Federazioak agiriak helaraziko dizkio Euskal Federazioari, gehienez bost (5) lanegunen epean, behin-behineko federazio baja emateko auzi hau aztertzeko aukera izan dezan.

## VI. IZENBURUA
## JOKALARIAK PRESTATZEKO ESKUBIDEAK

**72. ARTIKULUA.-** Lizentziak indarrean egoteko epea amaitzean jokalari orok askatasuna izango du edozein Erakunderekin izenpetu ahal izateko, jadanik federazio konpromisoaren ardura bere gain izatean salbu, Izenburu honetan xedatua alde batera utzita.

**73. ARTIKULUA.-** Lehen adieraziaren arabera, jokalariaren lizentzia amaitzen den denboraldiaren segidan jokalariak beste Erakunde batekin lizentzia izenpetzen duenean, jatorrizkoak konpentsazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea izango du, bere prestakuntza jardueraren ordainetan, betiere ondorengo baldintzak betetzen direnean:

1- Jatorrizko Kluba edo Erakundea eta Klub hartzailea Euskadiko Kirol Erakundeen erregistroan inskribatuta egotea.

2- Jokalariak hogeita bi (22) urte bete gabe izatea. Aipatu adina kirol denboraldi ofizialaren barruan konplitzen denean, jatorrizko Erakundeak eskubide hori denboraldi amaiera arte mantenduko du.

3- Jokalaria konpentsazioaren eskubidearekin gutxienez bi (2) denboraldi jarraian Erakundeko kide izatea, Kadete kategoriatik kontatzen hasita, bere kalkulua jubenil kategoriako lehen urtetik aurrera soilik kontuan hartuta.

4- Jokalaria kategoria berdineko edo goragoko kategoriako taldeekin kontatzen duen klubera joatea.

5- Jokalaria talde filial batera joango balitz, klub babeslea jokalari hori prestatzeko eskubideengatik eskatzen den konpentsazioa asebetetzeaz arduratuko litzateke, betiere klub babesleak hura besterentzen duenean, gutxienez bost partidu ofizialetan.

Jokalari bat urte betez fitxarik gabe egotean, Klubak Prestakuntza Eskubideak galduko ditu, jokalari horrek hogeita bi (22) urte beteta izan arren.

Erreklamazioa egiten den denboraldian jokalari erreklamatuaren adineko kategorian talderik izaten ez duen klubak eta bere filiala den klub babeslearen barruan ere talderik izaten ez duenak, klub hartzailean inolako konpentsaziorik jasotzeko aukerarik ez du izango.

Lehenengo jatorrizko klubak, egungo arautegiaren arabera dagokion konpentsazio osoa jasotzeko eskubidea izango du, bere lizentzia iraungi zenetik ondorengo denboraldian jokalariak Klubaz aldatzen duen bezainbat alditan.

Jokalariaren jatorrizko lehen Klubean bere lizentzia iraungi zenetik ondorengo denboralditan jokalariak Klubaz aldatzen diren aldi orotan, horiek konpentsazio ekonomikoa jasotzeko eskubide berdina izango dute, aurreko baldintzak betetzen badira, baina horren % 25a lizentzia zuzenean Euskal Eskubaloi Federazioari eskatuko dion jatorrizko lehenengo Klubari dagokio.

**74. ARTIKULUA-**

1. Konpentsazioaren zenbatekoa eta bere baremoak Batzorde Nagusiak erabakiko ditu, Euskadiko Euskal Federazioko batzordekideen edo Zuzendaritza Batzordearen proposamenari jarraiki.

2. Jatorrizko Erakundeak arautegi honen arabera dagokion konpentsazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea izango du, bere lizentzia iraungi zenetik hurrengo denboraldian zehar jokalaria beste Erakunde batera aldatzen den aldi orotan; denboraldia amaitzean, eskubide hori ere amaituko egingo da.

3. Prestakuntza Eskubide horren ordainketa derrigorrezkoa da Erakunde guztietarako; ordainketa horren garrantzia federazio kuotaren edo bestelako betebeharren parekoa izango da, konplimendu ezaren kasuetarako Diziplinazko Erregimenaren Arautegian finkatzen diren zigorrekin eta diziplina aurreikuspenekin batera. Jokalari eraginak ez dira inolako debekuren mendean aurkituko euren kirolari lizentzia nahi duten Erakundearekin izenpetzeko orduan, lehen aipatu betebehar ekonomikoa derrigorrezkoa izan arren.

4. Espresuki onartzen da prestakuntza eskubidearen jatorrizko Erakunde onuradunak prestakuntza horri uko egin ahal izatea edo bestela Erakunde hartzailearekin beste edonolako konpentsazio dela medio bere ordezkapena hitzartzea.

5. Jokalari baten Prestakuntza Eskubidea asebete duen Erakundeak, urte bete (1) baino iraupen luzeagoko konpromezua izenpetu ez duenak, hurrengo denboraldian bere plantillan jokalaria izenpetzen duen Erakundeak asebetetako zenbatekoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

**75. ARTIKULUA.-** Konpentsazioen zenbatekoa ezagutzeko kalkulua:

Konpentsazioa = (N+C+E) x P x I x K x S

**"N".** Jokalariak Erakundeko kide bezala eman duen urte kopurua, jubenil kategoriatik aurrera._

**"C".** Jokalariaren kategoriaren araberako puntu kopurua, alegia:

| | |
|---|---|
| Senior kategoria | 3 puntu |
| Jubenil kategoria | 2 puntu |

**"E".** Baremoa aplikatu aurreko denboraldian Erakundean inskribaturiko taldeen araberako puntu kopurua. Gizonezko jokalariaren kasuan ez dira Erakundeko emakumezkoen taldeak kontatuko eta alderantziz.

| | |
|---|---|
| 1-2 talde | 1 puntu |
| 3-4 talde | 2 puntu |
| 5 talde edo gehiago | 3 puntu |

**"P".** Puntu bakoitzeko zenbatekoa Biltzar Orokorrak bi (2) urtero berriztatuko du. 2018-2019 eta 2019-2020 denboralditarako hamabi eurokoa (12€) izango da.

**"I".** Erakunde hartzaileko lehen taldearen kategoriaren araberako gehikuntza. Hau da:

| | |
|---|---|
| Gizonezko eta Emakumezko Ohorezko Maila | 9 puntu |
| Gizonezko eta Emakumezko Zilarrezko Ohorezko Maila | 7 puntu |
| Gizonezko Lehen Maila | 6 puntu |
| Gizonezko eta Emakumezko Euskadiko Txapelketa | 5 puntu |
| Gizonezko eta Emakumezko lurralde senior txapelketa | 4 puntu |
| Gizonezko eta Emakumezko Euskadiko Jubenil Txapelketa | 3 puntu |
| Gizonezko eta Emakumezko Lurralde Jubenil Txapelketa | 2 puntu |

**"K".** Koefiziente zuzentzailea, jokalariari dagokion proiekzioa kontuan hartuta, gutxienez Espainian eta/edo Euskadin ordezkatutako nazioarteko partidu batean inskribatuta aurkitzean:

| | |
|---|---|
| Selekzio Nazional Absolutua | 5 puntu |
| Junior Selekzio Nazionala | 4 puntu |
| Jubenil Selekzio Nazionala | 3 puntu |
| Promesak Selekzio Nazionala | 2,50 puntu |
| Autonomia Selekzioak | 2 puntu |
| Lurralde Selekzioak | 1,50 puntu |

Koefiziente horiek ez dira metagarriak eta gorena soilik aplikatuko da. Lehiatzen ez denean, koefizientea puntu batekoa (1) izango da.

"**S**". Erakunde hartzaileak dituen oinarrizko eta jubenil taldeen kopuruaren arabera, ondorengo koefizientea aplikatuko da:

| | |
|---|---|
| 0-2 talde | 2 puntu |
| 3 talde edo gehiago | 1 puntu |

Zenbaketa egiteko orduan, gizonezkoen eta emakumezkoen taldeak soilik hartuko dira kontuan, jokalaria gizonezkoa edo emakumezkoa izaten denaren arabera.

**75. BIS ARTIKULUA**.- Titulu honetan arautuktakoa (Jokalariak Prestatzeko Eskubideak) Euskal Eskubaloi Federazioaren eskumenekoa izango da baldin eta ondorengo kasuak ematen ez badira:

a) Estatu mailako akreditazioa Espainiar Federazioak tramitatu badu
b) Lurralde federazio batek igorritako lizentzia bateri dagozkion jokalariak prestatzeko eskubideak, Erkidego desberdinetako bi elkarteeri eragiten badie.

## VII. IZENBURUA
## TALDE ERAKETA

### 1. Kapitulua
### GIZONEZKOEN SENIOR TALDEAK

**76. ARTIKULUA.-** Gizonezkoen senior txapelketetan, taldeak jokalari guztiekin jardungo dira, talde berdinean fitxa zuzenarekin senior kategorian aurkitzen direnekin, partidu bakoitzean Klub bereko eta behar bezala bideratutako lizentzia erabilgarri duten jubenil kategoriako jokalariak partidu bakoitzean inskribatu ahal izanik. Era berean erabili ahal izango dira partidu bakoitzean, Klub bereko eta/edo filialeko beheragoko taldeko senior kategoriako jokalariak.

### 2. Kapitulua
### EMAKUMEZKOEN SENIOR TALDEAK

**77. ARTIKULUA.-** Emakumezkoen senior txapelketetan, talde berdinean fitxa zuzenarekin senior kategorian aurkitzen diren jokalari guztiekin hartuko dute parte taldeek; partidu bakoitzean Klub bereko eta behar bezala lizentziaren jabe diren jubenil kategoriako jokalariak partidu bakoitzean inskribatu ahal izanik. Era berean, partidu bakoitzean halaber Klub bereko eta/edo filialeko beheragoko taldetako senior jokalariak erabili ahal izango dituzte, txapelketa bakoitzeko arautegian edo oinarrietan finkatu baldintzak kontuan hartuta.

## 3. Kapitulua
## TALDE JUBENILAK ETA OINARRIZKO KIROLETAKO TALDEAK

**78. ARTIKULUA.-** Txapelketa hauetan parte hartu ahal izango dute jokalariek, txapelketa bakoitzeko arauetan xedatu adinak, sexuak eta kategoriak kontuan hartuta. Jokalari partaide guztiek txapelketa ospatzeko denboraldian zehar indarrean dagoen lizentziarekin kontatuko dute.

# VIII. IZENBURUA
# JOKO-EREMUA

## 1. Kapitulua
## JOKO-EREMUETAKO BALDINTZAK

**79. ARTIKULUA.-** Autonomia esparruko txapelketen partidu ofizialak Federazio Klubetako joko-eremuetan soilik ospatu ahal izango dira, bere jabegokoan edo utzitakoan, betiere Euskal Eskubaloi Federazioak edo dagozkien Lurralde Federazioek baimena eman dutenean, jokorako bere baldintza teknikoak zein arautegikoak aurretiaz onartuak eta egiaztatuak izan ondoren.

**80. ARTIKULUA.-** Joko-eremuen azalera laua izan beharko da, zoladuraren materiala berriz, konpaktua eta uniformea.

**81. ARTIKULUA.-** Aurreko artikuluan zehaztu gabeko baldintzak betetzen ez duen eta indarrean dagoen Jokoaren Arautegi Ofizialean xedatu neurriak ez dakartzan joko-eremurik ez da baimenduko.

**82. ARTIKULUA.-** Kategoria eta txapelketa batzuetarako eskatu ahal diren hainbat ezaugarriri utzi gabe, joko-eremuak erabat laukizuzenak izan beharko dira, edozein kasutan desnibela gehienez % 1ekoa izanik.

**83. ARTIKULUA.-** Joko-eremuak arautegiaren arabera markatu beharko dira partiduen hasieran, Jokoaren Arau Ofizialetan honen inguruan xedatzen denaren arabera.

**84. ARTIKULUA.-** Partiduan zehar lerroak desagertu egingo balira edo behar bezainbat ikusiko ez balira, Klub antolatzailea gabezia hauek konpontzera behartuta legoke, epaileen eskakizunen arabera.

**85. ARTIKULUA.-** Autonomia txapelketetako joko-eremu guztietan paretako markagailua erabilgarri jarriko dira, instalazio osagarri modura, aldagarri independenteak, talde lehiakide bakoitzerako, independenteak eta arbitro taldea, konketak, dutxak eta gainerako osasun zerbitzuak dakartzatenak.

**86. ARTIKULUA.-** Joko-eremuak sarbide zuzenarekin kontatu beharko du, eta partaide ororen segurtasun bermeak beteko ditu.

**87. ARTIKULUA.-** Denboraldi bakoitza hasi aurretik, Klub guztiek Euskal Eskubaloi Federazioa egoeraz informatuko dute, antolatzea dagozkion partiduak ospatzeko joko-eremuen neurriak eta baldintzak hala nola

eserita zein zutik egoteko ikusleen erabilerarako plaza kopuruaren berri emanez. Eransten diren eraikinak edo aldaketak Euskal Federazioan jakinarazi beharko dira, erreformaren ondoren joko-eremuaren eta bere instalazioen erabilgarritasuna zehazki ordezkatuko duen eskala planoarekin hornituz.

Euskal Eskubaloi Federazioak edo honen mendeko Lurralde Federazioek joko-eremuen urteko azterketa egiteko eskumena izango dute.

Joko-eremu haiek, zein txapelketan zehar behin-behineko edo behin-betiko pista aldaketa egiteko eskatzen direnak, era berean, dagokion Lurralde federazioko teknikari baten aldetik aztertuak izango dira.

**88. ARTIKULUA.-** Txapelketa ofizialetan zehar, debekatuta dago horien hasieran finkatu edo adierazi joko-eremuko neurriak aldatzea.

**89. ARTIKULUA.-** Klub batek arautegiaren aurkakoak kontsideratzen dituenean beste Klub bateko joko-eremu bateko baldintzak edo neurriak, Euskal Eskubaloi Federazioaren aurrean salaketa jarri ahal izango du. Salaketa jasotzean, Federazio horrek dagokion espedientea bideratuko du, klub salatuari bista emanez eta dagokion Lurralde Federazioari beharrezko egiaztapena eskatuz, salaketa hori gehienez HIRUROGEITA HAMABIKO (72) epean bideratua izan dadin.

Edozein kasutan, Euskadiko Eskubaloi Federazioak joko-eremuari dagozkion baldintzak hobeto ezagutzeko egokitzat jotzen dituen izapideak egiteko eskubidea gordetzen du.

**90. ARTIKULUA.-** Joko-eremu federatu guztietan, presidentetza-palkoaren plazak erreserbatuko dira edo, hala izan ezean, lehentasunezko tokia, goi mailako kirol agintarientzat eta Euskal Eskubaloi Federazioko zein dagokion Lurralde Federazioko kideentzat.

Hala ere, autonomia txapelketako Klub partaide orok gizarte esparruko hiru egun antolatu ahal izango ditu; horietan zehar federazio baimen guztiak ezabatu egingo dira, kirol agintarienak, Euskal Eskubaloi Federazioko eta Lurralde Federazioko kideenak izan ezik, bertan horren berri emanez, hamar (10) egun lehenago.

**91. ARTIKULUA.-** Joko-arauen arabera aldaketa-gunea utzi egin behar denean, xede guztietarako, "eragin-gunea" kontsideratuko da erreserba-aulkien eta kronometratzaile-mahaiaren kokalekuaren alboko bandaren erpinen arteko gunea hala nola balda horri dagokion harmaila osoa.

## 2. Kapitulua
## JOKO-EREMUEN ORDENA

**92. ARTIKULUA.-** Instalaziotako antolatzaileak eta jabeak, edozein eskubaloi partidu, torneo edo txapelketa edo bestela kontzentrazioaren arabera jokatzen den txapelketa antolatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak izanik, horiek normaltasun osoz eta kirol gertakizun orori dagokion giro zuzenean garatu daitezen saiatzera behartuta daude, adiskidetasun eta harrera kontsiderazioak zainduz partiduaren aurretik, bere garapenean eta ondoren, partidu edo txapelketa guztian zehar eta indarrean dagoen arautegiari jarraiki, eta indarrean dagoen arautegiaren arabera partidu edo txapelketa osoan zehar joko-eremua behar bezalako baldintzetan mantenduz; ondorioz, eginbide edo prebentzio ezagatik jazo litezkeen kalteak zein gehiegikeriak euren gain hartu beharko dituzte.

Jokalariak, teknikariak, zuzendariak eta kirol diziplinaren mendeko gainerako pertsonak, kontzentrazioaren araberako partiduaren, torneoaren edo txapelketaren klub antolatzailekoak zein klub bisitarikoak, bata zein bestea behartuta daude ikusleekiko, federazioko kideekiko, kirolariekiko eta instalazioekiko zuzentasun eta errespetu betebeharrak zaintzera.

**93. ARTIKULUA.-** Bere joko-eremuan jokatzen duen Klubak, bere erabilerarako zerbitzuak, jokalarien zein epaileen aldageletakoak behar bezala bermatuak egotea zaindu beharko du eta partidu bakoitzerako joko-eremuko ordezkari bat esleituko du, dagokion Taldeko Ofizialaren lizentziarekin kontatu beharko duena.

Beharrezkoa izaten denean, partidu ofizialaren Klub antolatzaileak eskumeneko Agintaritzari joko-eremuko Indar Publikoaren presentzia eskatzeko betebeharra izango du.

**94. ARTIKULUA.-** Klubak bere ikusleen indarkeriazko eta kiroltasunaren aurkako jarreraz arduratuko dira eta euren ardura izango da, une orotan, ordena mantentzeko beharrezko neurriak hartzea eta bere ikusleen aldetik kiroltasunaren aurkako zein indarkeriazko adierazpenak saihesten ahalegintzea.

**95. ARTIKULUA.-** Talde bietako kapitainek dagozkien Kluben ordezkaritza baimendua eratzen dute eta euren eskumenekoa da epaileengana zuzentzeko ahala, oharrak egiteko orduan, betiere horretarako errespetuzko jarrera zaintzen dutenean. Bestalde, taldeko bere kideek une orotan jarrera zuzena izan dezaten zaintzea dagokie.

**96. ARTIKULUA.-** Arautegiaren araberako partiduaren denboran zehar debekatuta dago joko-eremuan eta hura mugatzen duten lerroen arteko gunean hala nola ikusleen gunetan jokoan parte hartuko ez duen inolako pertsonarik aurkitzea; jokalarien, ordezko jokalarien, joko-eremuko ordezkariaren eta Klubeko langileen zerbitzura daudenen misioa hain zuzen agindu honen konplimendua zaintzea izango da; bertan zerbitzua emango duten agintaritza agenteak eta prentsa argazkilari baimenduak. Aipatu gunean, partiduan ofizialki jardutera, aipatu gunean jarduera bat betetzera edota egotera datorrenaren presentzia baino ez da onartuko.

Epaileek ezin izango dute inolako partidu ofizial jokatu, baldintza hauek zorrozki betetzen ez badira, eta baldintza hauek mantentzea ezinezkoa den neurrian partiduaren etenaldia agindu ahal izango dute.

Era berean, arbitroak ezin izango dira joko-eremura sartu, ezta bereziki eurentzat prestatu den tokitik kanpo kokatu ere, eskumeneko organoaren sinadura dakarren lizentzia edo baimena espresuki aurkezten ez duten ofizialak.

## IX. IZENBURUA
## PARTIDUAK

### 1. Kapitulua
### XEDAPEN OROKORRAK

**97. ARTIKULUA.-** Partidu guztiak, txapelketa ofizialekoak zein lagunartekoak, Nazioarteko Eskubaloi Federazioko (IHF) Arautegietan eta Euskal Eskubaloi Federazioko indarrean dauden eta honek ofizialki argitaratu diren Joko Arau Ofizialen arabera jokatuko dira.

Era berean, Arautegi honetako xedapenen arabera zuzenduko dira, kasu bakoitzean eta auren ahala dela medio, eskumeneko zuzendaritza organismoek agintzen dutenari utzi gabe, txapelketa haietan zeinetan baldintza bereziekin jokatzea ezinbestekoa izango den.

**98. ARTIKULUA.-** Autonomia eremuko partidu ofizialak kontsideratuko dira kategoria ezberdinetako gizonezkoen eta emakumezkoen Euskadiko Txapelketako partiduak, gizonezkoen eta emakumezkoen Euskadiko Kopak, kategoria ezberdinetako gizonezkoen eta emakumezkoen Euskadiko Selekzioko partiduak eta Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen haiek guztiak.

**99. ARTIKULUA.-** Lagunarteko partiduak kontsideratuko dira aurreko artikuluan kontsideratu ez diren haiek guztiak, euskal taldeen artean ikuskizuna eta entrenamendua jarduera moduan garatuak, gainerako lurralde nazionaleko edo atzerriko jokalariekin jokatu ahal izanik; Euskal Eskubaloi Federazioaren eskumenekoak lirateke lurralde historiko ezberdinetako taldeen artean ospatzen diren haiek.

**100. ARTIKULUA.-** Euskal Eskubaloi Federazioari dagokio Lurralde Selekzioen arteko hala nola Euskadiko Selekzioaren eta beste Autonomia Erkidego, herrialde edo eskualde batzuen arteko partidu ofizialak antolatzeko eskumen esklusiboa, betiere RFBM-ri aurretiko jakinarazpena helarazten zaionean.

Lurralde Selekzioek euren Lurralde Historikotik kanpo ospatzen dituzten partiduek, Euskal Eskubaloi Federazioaren aurretiko baimena beharko dute.

**101. ARTIKULUA.-** Gizonezkoen eta emakumezkoen senior, jubenil eta kadete kategorietako partidu ofizialen iraupena 30 minutuko bi alditan banatuko da, bi aldien artean 10 minutuko etenaldia eginez.

**102. ARTIKULUA.-** Partiduak hasi aurretik, taldeek epaileei partidu horretako jokalarien eta ofizialen aulkian egoteko federazio lizentziarekin eta baimenarekin kontatzen duen pertsonaren berri emango die; talde bakoitzeko “ofizial arduradunaren” funtzioak beteko ditu, Arautegi honetan xedatuaren arabera. Ezer adierazten ez denean, funtzio horiek entrenatzaile titularrak beteko ditu.

**103. ARTIKULUA.-** Gizonezkoen zein emakumezkoen partidu guztietako aktan hamasei jokalari inskribatu ahal izango dira eta txapelketa bakoitzeko derrigorrezko kopuru minimoa Oinarri Arautzailetan jasotzen da.

Era berean, derrigorrezkoa da partidu horietan Entrenatzailea eta Talde Ordezkariaren funtzioak betetzen dituen Ofizialaren inskripzioa eta presentzia fisikoa kontuan hartzea; eta talde antolatzailearen kasuan berriz, Joko-Eremuko Ordezkaria izango den beste Ofizialarena.

Horiek guztiak, aktan jasota gera dadin, dagokien bermearekin eta indarrean dagoen euren lizentziarekin aurkeztu beharko dira.

**104. ARTIKULUA.-** Debekatuta dago gizonezkoen zein emakumezkoen kadete kategorian inolako substantzia itsasgarririk edo kolarik erabiltzea.

**104. ARTIKULUA.-** Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen lehiaketa guztietan identifikazio-zintzilikariak eraman behar direla ezartzen da.

## 2. Kapitulua
## UNIFORMETASUNA

**105. ARTIKULUA.-** Talde bateko jokalariak joko-eremuan jardun beharko dira partidu osoan zehar, bere Klubeko kolore bereizleak dakartzan uniforme berdina lagun, kolorea eta diseinua talde aurkariarekiko argi eta garbi bereiziz eta derrigorrez kirol zapatilak eramanez; atezain modura jarduten diren jokalarien jantzia argi eta garbi bereiziko da bi taldeko jokalariengandik eta atezain aurkariarengandik.

Denboraldia hasten denean, klubek ezin izango dute Federazioari jakinarazitako koloreak aldatu (titularra eta/edo erreserba), idatziz espresuki adieraztean eta dagokion baimen ofiziala lortzean izan ezik; baimen ofiziala eskuratzen denetik hamabost (15) egun barru jarriko da indarrean.

Aurreko paragrafoetan xedatua konplitzen ez duten jokalarien jarduera debekatuta dago, hauteman diren gabezia horiek konpontzeko prest ez daudenean.

Edozein kasutan, derrigorrezkoa da partidu berdinean parte hartzen duten atezainek beti jantzi berdina eramatea.

**106. ARTIKULUA.-** Jokalarientzat arriskutsua izan ahal den edozein objektu eramatea debekatzen da, adibidez: buruko babesa, aurpegiko maskarak, besokoak, ordulariak, eraztunak, koilareak edo kateak, belarritakoak, banda babesle edo armazoi sendoko betaurrekoak. Buruko bandak erabili ahal dira, betiere materiala malgua eta leuna izaten denean.

Arau horiek betetzen ez duten jokalariak ezin izango dira jokoan partaide izan, arazoa ebatzia izan den arte.

**107. ARTIKULUA.-** Bi talderen arteko norgehiagokan, nahastea ekar zezaketen uniforme berdineko edo berdintsuko bi talde elkartzen direnean, besteren joko-eremuan jokatzen duen taldeak berea ezberdin batengatik aldatuko du eta partidua joko-eremu neutralean garatuko balitz, txapelketaren egutegi ofizialeko bigarren postuan aurkitzen den taldeak ekingo lioke kamiseta aldatzeari.

Gertaera horretarako irtenbidea da talde aurkariak kirol jantzi ezberdinekin aurkeztea.

Telebistaz eskainitako partiduen kasuan, talde baten edo bien koloreak aldatu beharko dira, pantailan zehar bereiztea teknikoki ezinezkoa izango litzatekeen kasuan.

**108. ARTIKULUA.-** Talde bakoitzeko kapitainek gutxi gorabehera 4 cm-ko zabalerako besokoa eraman beharko dute, besoetako baten behealdean, kamisetarekiko ezberdina izango den kolorekoa izanik.

**109. ARTIKULUA.-** Partiduetako jokalarien zenbakiari dagokionez, hau zifra bateko edo biko zenbakia izan beharko da; korrelatiboak izatea ez da beharrezkoa, ezta fitxa kopuruaren arabera ere.

Jokalarien kamisetan azaltzen diren zenbakiak, kamisetaren kolorearekiko argi eta garbi ezberdindu beharko dira; bere dimentsioak eta kokapena ondorengo arauen arabera finkatuko dira:

a) KAMISETAREN DERRIGORREZKO EZAUGARRIAK: 20 cm-ko altuera bizkarrean eta 10 cm-ko altuera aurrealdean.
Zenbaki biak estetikoki erdiratzea bilatuko da.

b) GALTZETAKO HAUTAZKO EZAUGARRIAK: 7 cm-ko altuera galtzaren hanka-albo batean (laburra jokalariarentzat eta luzea edo laburra atezainentzat).

## 3. Kapitulua
## JOKATZEKO BALOIA

**110. ARTIKULUA.-** Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen lehiaketetan erabiliko diren baloiak HUMMEL markakoak izango dira, ENERGIZER HB modelokoak edo antzekoak, baina beti HUMMEL markakoak, 2021eko uztailaren 3an egindako batzarrean onartutakoaren arabera. Baloien neurriak eta pisua ondoren zehazten direnak izango dira:

| KATEGORIAK | NEURRIAK | PISUAK |
|---|---|---|
| Gizonezkoen absolutuak eta jubenilak. | 58-60 cm. (zirkunferentziarena) | 425-475 gramo. |
| Emakumezkoen absolutuak eta jubenilak Eta gizonezkoen kadeteak: | 54-56 cm. | 325-400 gramo. |
| Emakumezkoen kadeteak | 50-52 cm. | Gehienez 315 gramo. |

Epaileek partidu ofizialaren ospakizuna baimenduko dute, betiere bere joko-eremuan jokatzen duen taldeak baloiak dakartzanean, aurreko taulan adieraziaren arabera.

Talde bisitariko kapitainaren eskakizunak kontuan hartuta, epaileek bere presentzia egiaztatuko dute.

Arautegiaren araberako baloi ezagatik partidua ospatu ezin denean, klub antolatzailea ez dela etorri kontsideratuko da, Arautegi honetan xedatuaren arabera.

## 4. Kapitulua
## PARTIDUEN DATAK ETA ORDUTEGIAK

**111. ARTIKULUA.-** Partidu guztiak Egutegi Ofizialean aurreikusi datetan ospatuko dira, ezinbestean edo Txapelketa Batzordearen erabakiaren arabera asteko lanegunetan ospatu beharko liratekeen haiek izan ezik.

Inola ere ez da ezinbesteko arrazoia kontsideratuko, baliabide ekonomikoen gabezia edo lekualdatzeak eta/edo joko-eremuaren kokalekua antolatzeko aurreikuspen eza.

**112. ARTIKULUA.-** Partiduen ordutegiak txapelketa bakoitzeko oinarrietan xedatuarekin egokitu beharko dira.

Fase bakoitzeko azken jardunaldiko partidu guztiak, bere arautegi berezian adierazi orduan eta egunean hasiko dira, guztiak aldi berean. Hala ere, Txapelketa Batzordea izango da neurri hau beharrezkoa ez denean zerbait esateko ahala izango duena.

**113. ARTIKULUA.-** Partiduak ospatzeko ordu zehatza eta joko-eremua derrigorrez jakinarazi beharko dituzte talde antolatzaileek, jardunaldi ofiziala ospatu aurreko asteleheneko 14:00ak baino lehen, Euskal Eskubaloi Federazioko web ofizialean erabilgarri jarritako informatika aplikazioaren bidez.

Arau honen konplimendu eza Diziplinazko Erregimenaren Arautegiaren arabera zigortuko da eta arau-hauste horren ondorioz partidua ospatuko ez balitz, klub antolatzaileak ez etortzearen zigorra jasango luke, Txapelketa Batzordearen irizpidearen arabera, bere larritasuna kontuan hartuta.

## 5. Kapitulua
## DATA ATZERAPENAK ETA ALDAKETAK ETA PARTIDUEN ETENALDIAK

**114. ARTIKULUA-** Partidu guztiak atzeratu ahal dira edo beste modu batera esanda bere ospakizun data alda daiteke, bai behar bezala bermatutako ezinbesteko arrazoiak direla medio eta bai Txapelketa Batzordearen ofizioz.

Aldaketa hori parte eskaeraren bidez adierazten denean, eskatzaileak hori idatziz eskatu beharko dio, fax, e-mail edo jaso izanaren adierazpeneko gutun ziurtatuaren bidez, Euskal Eskubaloi Federazioari, jardunaldi ofiziala ospatu aurreko osteguneko 13:00ak baino lehen.

Jakinarazpen honekin batera atxiki beharko da 50 €-ko ordainketaren agiria, aldaketaren tasa kontzeptu modura, baita talde lehiakideak idatziz emandako adostasuna ere.

Edozein kasutan, partiduen ospakizun daten aldaketa guztiak espresuki baimendu beharko ditu Euskal Eskubaloi Federazioak.

Bestalde, partiduen ospakizun data atzeratu edo aldatu ahal izango da, Autonomia eta/edo Estatuko Selekzioen jarduerak direla medio, baita IHF eta/edo EHF-ko nazioarteko txapelketen konpromiso ofizialaren arabera ere.

Selekzio jardueren ondorioz motibatutako partiduen atzerapenak jokalariek federazio lizentzia bideratuarekin kontatzen duten kategorian soilik onartuko dira, kupo gehigarrien baitan klub bereko beste taldeen balizko partaidetza kontuan hartu gabe; atzerapen mota hauek jokalariak eragiten direnean soilik kontsideratuko dira.

Oro har, atzeratu beharreko partiduaren data finkatzeko adostasunik ez dagoenean, Txapelketa Batzordea izango da ospakizun data finkatuko duena.

Partidu haietan zeinetan bere atzerapena eskumeneko organoak onartuko lukeen, interesdunen eskaeragatik edota ofizioz, dagokion txapelketako egutegi ofizialaren arabera eta/edo bere ospakizunerako hasiera batean aurreikusi egunean zigorrik gabe jokatu beharko zatekeen datan behar bezala bideratua izan den lizentziaren jabe diren jokalariak soilik lerrokatu ahal izango dira.

**115. ARTIKULUA.-** Txapelketako partiduak ezin izango dira atzeratu, ondorengo zirkunstantziaren bat jazotzen denean izan ezik:

a) Ezinbesteko arrazoia dela medio.
b) Joko-eremuaren egoera txarra dela medio.
c) Ikusleak joko-eremuan sartzeagatik.

d) Lehiakidetako norbait etorri ez delako.
e) Taldetako batek ez obeditzeagatik edo taldetako baten hutsegite kolektiboagatik.
f) Epaileen erabaki teknikoa jarraituz, talde horietako bateko ala bietako arautegiaren araberako jokalari kopuru urriagatik.

**116. ARTIKULUA.-** Ezinbesteko arrazoia dela medio partidu ofizial baten atzerapena jazotzen denean, partidua hasi aurretik edo ondoren, betiere talde bisitaria lekualdatu denean, Klubek partidua ospatzea eta aurrera jarraitzea adostu ahal izango dute, hala badagokio, ondorengo berrogeita zortzi (48) orduren buruan. Klub bisitatuak bisitariaren diru-laguntza bere gain hartuko du, pertsona bakoitzeko (gehienez 16 pertsonentzat) eguneko dieta kontsideratuz, betiere partiduaren atzerapenak egun oso bateko ezohiko egonaldia suposatzen dionean. Dieta horien zenbatekoa kontzeptu honetarako Euskal Eskubaloi Federazioak finkatzen duen zifraren arabera finkatuko da.

Bisitariari eragingo dion kaltea joan-etorriaren lekualdaketari soilik badagokio, eta hura 250 Km-tik beherakoa ez bada, diru-laguntza autokarra alokatzeko zenbatekoarekin asebeteko da. Paragrafo honetan adieraziaren xedeetarako, ezinbestean bete beharreko baldintza izango da dagozkion egiaztagiriak aurkeztea.

Kasu horietan, atzeratu partidurako izendatu diren epaileek data berriko partidua arbitratzeko ardura ez dute derrigorrez bere gain hartu beharko.

**117. ARTIKULUA.-** Aurreko artikuluetan aurreikusi arrazoiak direla medio partidu bat eten edo atzeratu denean, Txapelketa Batzordeak data berria adieraziko du, dagokion txapelketaren arabera. Hura puntuen araberakoa izaten denean partidua ospatu beharko da, ahal den orotan, dagokion txanda amaitu aurretik.

Eten edo atzeratu den partidu bateko epaileen lekualdatze gastuak eta dietak, partiduaren etenaldia edo atzerapena, zuzenean edo zeharka, klub eragileak ordaindu beharko ditu, zirkunstantzia horien arrazoia Txapelketa Batzordearen esanetan ezinbestekotzat jotzen denean izan ezik.

**118. ARTIKULUA.-** Txapelketa ofizialeko partidu oro, hasi ondoren eta ezinbesteko arrazoiak direla medio eten beharko zatekeenean, berriro joko-eremu berdinean jokatuko litzateke, bere iraupena hain zuzen eten zen unean amaitzeko faltako litzatekeen denborarekin egokituz, etenaldiaren unean indarrean zegoen emaitza kontuan hartuta.

**119. ARTIKULUA.-** Partidu ofiziala eteten denean ikasleak joko-eremuan sartzeagatik edo jokalarien jarrera desegokiagatik, talde bisitariari, epaileari eta bere laguntzaileei eginiko erasoagatik, edo talde baten obedientzia ezagatik, Diziplinazko Erregimenaren Arautegian xedatua jarraituko da.

Txapelketa eta Kirol Diziplinazko Batzordeak erabakiko du, bere ebazpen egokiena hartzeko bildutako epai elementuak aztertzen dituenean.

Xede horietarako, ez da kontsideratuko epaileek teknikoki etendako partidua, bere garapenerako jokalarien gutxieneko kopurua ez betetzeagatik. Kasu horretan, markagailuan islatzen den emaitza balioduna izango da, arau-hauslea ez den taldearen aldekoa izaten denean. Arau-hauslea ez den taldearen aldekoa izango ez balitz, emaitza 1 - 0 izango litzateke, bere alde.

**120. ARTIKULUA.-** Ezinbesteko arrazoia lekualdatzeko txartelak eskuratu ezinarekin lortzen denean, alegazioa egiten duen Klubari justifikatzea dagokio, erreserba behar bezainbat aurrerapenarekin egin izana, egutegiaren bere betebeharrak eta txartelak lortu ezin izana onartzean, egoera hori eta arrazoi eragilea argi eta garbi islatzen duen enpresa garraiolarien egiaztagiria dela medio, bidaia-agentzietako egiaztagiriak onargarriak ez izanik.

**121. ARTIKULUA.-** Euskal Eskubaloi Federazioari dagokio bere antolaketa eskumeneko partiduen etenaldia agintzeko ahala, aurretiaz ezagutzen diren ezinbesteko arrazoiak direla medio partidua ospatzea ezinezkoa dela aurreikusten denean.

Salbuespenez, ezinbesteko arrazoia pandemia-egoera baten ondorio denean, aurreikusitako datan etendako partida ez da geroago jokatuko, eta, ondorioz, 143 bis artikuluan salbuespenezko egoeretarako ezarritako sailkapen orokorreko irizpideak aplikatuko dira, partida kopuru desberdina jokatu izanaren kasuak ebazteko. Paragrafo honetan idatzitakoa ez da aplikatuko asteburu bakarrean, ostiraletik igandera, jokatzen diren sektore, azken fase, sustapen edo igoeretan. Kanporaketen bidezko lehiaketa-sistemetan ere ez da aplikatuko, izan partida bikoitzekoak edo izan partida bakarrekoak. Kasu horietan, lehiaketa-batzordeak erabakiko du nola konpondu egoera bakoitza.

**122. ARTIKULUA.-** Partidua hasi ondoren baino ez, epaileek hura eten ahal izango dute, ondorengo arrazoiak direla medio:

a) Talde bat joko-eremutik erretiratzea, bere jarrerarekin eragoztegatik partidu osoa jokatzea.
b) Kiroltasunaren aurkako jokalarien portaera, partidua irabaztea eragozteko edota kirol ordena larriki nahasteko horien jarrera.
c) Ikusleak joko-eremuan sartzea, partiduaren jarraipena ezinezkoa bihurtuz, beharrezko segurtasun neurrien bermea gaindituz.

Edozein kasutan, epaileek, atzerapena agindu aurretik, bere irizpide onaren araberako zirkunstantzia horiek aintzat hartuta, partidua ospatu eta behar bezala garatu dadin baliabide guztiak agortzea bilatuz, ez dute inolako atzerapenik hitzartuko baldin eta hura erabat justifikatua izaten ez denean.

**123. ARTIKULUA.-** Eskumeneko organoaren arabera partidu hori garatzea edo errepikatzea beharrezkoa denean, partiduaren jarraipenean edo errepikapenean aktako arautegiaren arabera inskribatu eta gertaera horiek jazo direnean dagokien Kluben alde kalifikatutako eta jokatutako partiduan edo epean kanporatuak edo deskalifikatuak izan gabe, jokatzeko zigor eragozpenik ez duten jokalariak soilik lerrokatu ahal izango dira.

**124. ARTIKULUA.-** Partidu bat talde bisitariaren eskaeraren arabera atzeratuko da, bere hasiera ordutik hogeita hamar minutu iragan direnean, Klub antolatzaileari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla medio, esaterako epaileek joko-eremuan hautemandako konponbiderik gabeko akatsak, joko-eremuan aurkitzen diren Klubekoak ez diren elementuak, etab. , Klub antolatzaileari ez etorri izanaren zigorra aginduz.

Aurreko paragrafoan xedatu eskubidearen erabilera, betiere Txapelketa eta Kirol Diziplinazko Batzordeko irizpenaren zein ebazpenaren mendean geratuko da; Batzorde horri dagokio kasuaren zirkunstantzia zehatzak aztertzea; xede horietarako epaileek derrigorrez idatzi beharko dute Aktetan, Klub lehiakidetako ordezkariek xede horietarako adierazten dituzten jardueren eta alegazioen inguruko euren iritzia.

**125. ARTIKULUA.-** Talde biak behartuta daude partidua hasteko finkatu orduan prest egotera, bestela zigorra ezarriko da, ez etortzea bezala kontsideratuz, ezinbesteko arrazoiekin justifikatu ezean, zeinen inguruan Txapelketa Batzordeak irizpidea emango duen.

## 6. Kapitulua
## JOKO-EREMUETAKO TALDEAK ERRETIRATZEA

**126. ARTIKULUA.-** Partidua behar bezala hasi ahal izateko, talde bakoitzak joko-eremuan indarrean dagoen Joko Arautegi Ofizialean xedatu jokalari kopuru minimoarekin kontatu beharko du.

Talde bateko jokalari kopurua baimendu kopuruaren behetik aurkitzen denean, talde horrek partidua ez etortzeagatik bezala galduko du eta hipotesi horietarako xedatu neurrien arabera jokatuko da.

**127. ARTIKULUA.-** Klub bateko taldea partidua hasi ondoren joko-eremutik erretiratu behar izan denean, partidu osoa jokatu ezinik, edo bere jarreragatik partidua hastea ezinezkoa izaten denean, partidua galdu

duela ulertuz, Arautegi honetako ez etortzeen arloan xedatua aplikatuko zaio; gainera, Diziplinazko Erregimen Arautegian aurreikusi zigorrak inposatuko zaizkio.

Aurretiaz kontenplatuari dagokionez, ekintza multzoan edo inolako diziplinarik gabe banan-banan gertatuko balitz, zigorra berdin aplikatuko litzateke.

Talde bietako bat joko-eremutik erretiratu delako edo talde baten jarreraren eraginez partiduaren hasiera ezinezkoa izan delako, partiduko epaileen lekualdatze eta dieta gastuak talde horri dagokion klubak hartuko ditu bere gain.

Era berean, talde arau-hauslearen klubak lekualdatze gastuak zein joko-eremuarenak bere gain hartuko ditu, aurretiaz dagozkion fakturak aurkeztu ondoren.

**128. ARTIKULUA.-** Kiroltasunaren aldeko errespetuaren aginduari jarraiki, partidu ofizialetako taldeen emaitzak eta sailkapenak joko-eremuko euren jokaera garbiaren erantzun modura ulertu eta garatu beharko lirateke, dagozkion kontingentzia naturalen aurretiko konbinaketa edo manipulazio arrotzak alde batera utzita.

Klubek erabat debekatuta dute:

1. Sistema honen arabera jokatzen den txapelketa partiduan aurkariari zuzenean edo zeharka puntuak ematea.
2. Bi talde lehiakideen artean konpromiso emaitza bat hitzartzea.
3. Klubekoa ez den norbaitek partiduaren emaitza aldatzea lortzeko dagozkion kudeaketak egiten ahalegintzea, norbere interesa edota hirugarren batena direla medio.

## 7. Kapitulua
## TALDEEN EZ-AGERTZEAK

**129. ARTIKULUA.-** Ezinbesteko kasuan izan ezik, Txapelketa eta Kirol Diziplinazko Batzordearen arabera, partidu ofizial batera etortzen ez diren taldeek partidua 10 – 0 emaitzarekin galduko dute; gainera, sailkapen nagusiko bi puntu deskontatuko dira, horiek dagokion partiduko txapelketa fasean aplikatzeko, betiere txapelketa hori fase bat baino gehiagotan jokatzen denean; eta Diziplinazko Erregimen Arautegiaren arabera zigortuak izango dira.

Txapelketan zehar edo azken hiru partiduetako batean ez etortzea bigarren aldiz gertatzen denean edo kategoria birtualki galdutzat ematen denean, etorri ez den Klubak automatikoki galduko du Txapelketa eta bere puntuazio guztia, hurrengo denboraldia igaro arte bertara itzultzeko aukerarik gabe geratuz, eta Diziplinazko Erregimen Arautegian aurreikusi gainerako zigor osagarriak nagusituz.

Kanporaketen araberako txapelketa izanik, etorri ez den taldearen fasea galdutzat emango da.

Autonomia esparruko txapelketa ezberdinetako gune fasetara edo amaiera fasetara aurkezten ez diren lurralde taldeak, denboran eta forman bere partaidetzari uko egin ez diotenean, denboraldi batez partiduetan parte hartu gabe zigortuak izango dira.

**130. ARTIKULUA.-** Sailkapen ezarpenaren xedeetarako, Klub bat puntuen araberako txapelketa batetik erretiratzean edo kanporatua izanik zigortua izaten denean, bertan parte hartu izan ez balu bezala kontsideratuko da; ondorioz, ez zaio puntuaziorik emango ez aurkakoa eta ez aldekoa, erretiratzea edo kanporatzea txapelketaren azken hiru partiduen barruan gertatzen denean izan ezik; kasu horretan galdutzat emango litzaizkioke, jokatzeko leudekeenak, 10 – 0 emaitzarekin.

Fase ezberdinetan jokatzen diren txapelketetan, lehen esana txapelketatik erretiratzean edo kanporatze zigorra gertatzen den fasean soilik aplikatu ahal izango da.

**131. ARTIKULUA.**- Berdinketa hausteko partiduetan gertatzen diren ez etortzeak eta ezinbesteko arrazoiak direla medio bere egunean hasi ondoren eten ziren partiduen behin-behineko errepikapenetan, betiere arrazoiak justifikatuak eta arrazoizkoak direnean eta etorri ez den taldeak behar adinako aurrerapenarekin horren berri eman duenean, talde aurkariari gastuak eta eragozpenak ekiditeko, partidu horiek ospatzeko hamabost (15) eguneko gehieneko epea emango zaio. Arrazoi horiek behar adinako aurrerapenarekin justifikatzen ez direnean, edota epe horretan ez etortzearen berri ematen ez denean, arrazoiren bat dela medio, aurreko paragrafoetan adierazia eta Diziplinazko Erregimenaren Arautegian xedatua jarraituz, zigorra ezarriko da.

Kalte ekonomikoen zenbatekoa ulertzeko eta finkatzeko eskumena, ofizioz, Txapelketa eta Kirol Diziplinazko Batzordeari dagokio.

**132. ARTIKULUA.**- Talde antolatzailea etortzen ez denean, Txapelketa eta Kirol Diziplinazko Batzordearen irizpidea kontuan hartuta, honek talde bisitariari lekualdatze gastuak ordaindu beharko dizkio.

Talde baten lekualdatze gastuak finkatzeko, partiduak ezabatzeko arautegi honetan xedatua jarraituko da.

Era berean eta Talde antolatzailea edo bisitaria justifikaziorik gabe etortzen ez denean, lekualdatze gastuak eta dagokion arrazoia dela medio ospatu ezin izan den partiduko epaileen dietak, etorri ez den taldearen klubak hartuko ditu bere gain.

## X. IZENBURUA
## TXAPELKETAK

### 1. Kapitulua
### XEDAPEN OROKORRA

**133. ARTIKULUA.-** Euskal Eskubaloi Federazioan antolatzen diren txapelketak, oinarrian eta oro har, Arautegi honetan xedatuaren arabera zuzenduko dira, txapelketa zehatz bakoitzeko arautegi zehatzaren bidez eta bere ondorengo zuzenketa aukerari utzi gabe.

**134. ARTIKULUA.-** Txapelketak, ezabaketa sistema edo puntuen araberako liga direla medio jokatu ahal izango dira.
Izaera bereko txapelketen baitan, maila ezberdinak kontuan hartuta, mailetan edota ordena korrelatiboko kategorietan ordenatuko dira.

Txapelketak, bertan parte hartu ahal duten jokalarien egoera kontuan hartuta ordenatuko dira, gizonezkoen eta emakumezkoen taldeak izanik; partaideen adinari dagokionez, senior, jubenil eta kadete kategoriak daude.
Amaitzeko, izaera berekoen kategoria edo maila ezberdina kontuan hartuta, taldeak ordena korrelatiboaren araberako mailetan edo kategorietan ordenatuko dira.

### 2. Kapitulua
### TXAPELKETA MOTAK ETA JOKATZEKO MODUAK

**135. ARTIKULUA.-** Kanporaketen araberako txapelketak partidu bakarrarekin jokatu ahal izango dira, joko-eremu neutralean edo lehiakide bietako baten joko-eremuan, edo bestela partidu bikoitzarekin, aurkarien joko-eremu bakoitzean bat.

Puntuen araberako ligaren formularekin antolatu txapelketak txanda batekoak edo bikoak edo bestela guztiak guztien aurka sistemaren araberakoak izan ahal dira. Txanda bakarreko puntuen araberako txapelketetan, hautazkoa da horietako partiduak joko-eremu neutralean edota zozketaren arabera dagokion

Klub interesdunaren joko-eremuan jokatzea; baina txanda bikoitzeko txapelketak, klub guztiak partidu bat bere joko-eremuan eta bestea aurkariaren joko-eremuan jokatzeko moduan ordenatuko dira.

**136. ARTIKULUA.-** Txapelketak kanporaketa sistemaren arabera antolatzeko jarraitu beharreko formula edo prozedura ondorengoa da: kluben kopurua zehazki 4, 8, 16 edo 2ren edozein potentzia izaten denean, klub bakoitzari zozketaren arabera dagokion zenbakia emango zaio, ondorioz lehenengo kanporaketa jokatuko du 1ak 2arekin, 3ak 4arekin, 5ak 6arekin, 7ak 8arekin, etab., eta horrela hurrenez hurren, finalistak eta garailea izendatu arte.

Kanporaketa sistemaren araberako txapelketa batean inskribatu taldeen kopurua ez da finkoa izango, baina kontuan hartu behar da, 2ren potentzia izaten ez denean, hau da 4, 8, 16, 32, 64, etab.; ezinbestekoa izango da lehen kanporaketaren bidez bere zenbakiaren azpitik dagoen 2ren potentzia bihurtzea, txapelketaren garapen normala zaintzeko helburuari jarraiki.

Hori lortzeko, talde kopuru bat lehen kanporaketa jokatzetik libre geratuko da, horrela, kanporaketa horri dagozkion partiduetako garaileekin batera, bigarren kanporaketa ospatzeko beharrezko kopurua lortuko da. Lehenengo txapelketatik libre geratzen den talde kopurua edo partidu kopurua zehazteko prozedura ondoren adierazten denaren arabera garatuko da:

Talde kopuru osoaren eta 2ren potentziaren arteko diferentziak berehala jokatu beharreko partidu kopurua ekarriko du.

Salbuesten den talde kopurua E hizkiarekin ordezkatzen da; P hizkiarekin, lehen kanporaketan jokatu beharreko partidu kopurua; PS-gatik biderkatuko da inskribatu talde kopuru horren gainetik dagoen 2ren potentzia; NC-gatik biderkatuko da talde inskribatuen kopurua; eta PI-gatik lehen kanporaketako partiduak, lehen aipatu bi arauak aplikazio orokorreko bi ondorengo formulekin kondentsatu ahal izango dira:

E = PS - NC
P = NC - PI

Talde salbuetsien kopurua lortzean, taldeak zozkatuko dira, dagokien ordena korrelatiboa emanez; taldeak horrela zenbatu ostean, salbuetsiak kopuru pareak badira, erdibana banatuko dira, lehenengoen eta azkenen artean, eta kopurua bakoitiak badira berriz, behekoekin bat gehiago jarriko da.

Guztiak guztien aurka sistemaren araberako txapelketa bateko egutegia esleitzeko eta eratzeko prozedura egokiena ondoren adierazten den moduan garatuko da:

Txapelketa bakoitzerako zenbaki konbinaketak, agerikoa denez, txapelketa bakoitzeko talde partaide kopuruaren araberakoak dira. Taldeen arteko ezinbesteko txanda erlazioak, joan-etorriaren mugimendu erregularreko konbinaketa bakoitza bikoa izatera darama, hau da, partidu bat bere joko-eremuan eta bestea bere aurkariaren joko-eremuan, gainerako guztiek bi partidu jarraian izan ditzaten kanpoan edo barruan txanda bakoitzean, lau Kluben konbinaketan izan ezik, zeinetan mugimendu irregularreko joan-etorrietan ezinbestean hiru partidu jarraian ospatuko diren bere joko-eremuan edo aurkariaren joko-eremuan, bi txanden artean.

Jarraian eskaintzen diren tauletan, partiduak antolatzeko ezarri ahal izan diren urrats gomendagarrienak adierazten dira; adierazgarria da taldetako edozein erabat aurkako mugimenduarekin atxikitako beste batekin jardun ahal izatea; hori oso garrantzitsua izango da udalerri bereko talde biren arteko partiduak aldi berean suertatzea saihesteko orduan.

4, 6, 8, 10, 12, 14 eta 16 zenbakien konbinaketetarako urratsak soilik ematen dira. Txapelketa bateko egutegia eta ordena ezartzeko, bertan parte hartuko duen talde kopuruari dagokion urratsa bilatzea baino ez da behar, zenbakiak zozkatzea, inskribatu talde kopurua bakoitia izango balitz bezala; urrats erabilgarria segidako zenbaki pare handiagoaren berdina da, baina data bakoitzean ez da lehiatuko data berdinetan bere joko-eremuan partiduak ospatzea dagokion taldea; bi horien artean euren artean egokitzen diren

zenbakietako bi zozkatuko dira, aurkako mugimenduaren arabera. Hauek dira, ondorengo tauletan azaltzen den bezala, bikote naturalak eratzera datozenak, hau da: 1/2, 3/4, 5/6, 7/8, 9/10, 11/12, 13/14 eta 15/16.

**LAU TALDEKOA**

| | | |
|---|---|---|
| 1. data | 1-3 | 4-2 |
| 2. data | 4-3 | 2-1 |
| 3. data | 3-2 | 1-4 |

**SEI TALDEKOA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. data | 1-3 | 4-5 | 6-2 |
| 2. data | 3-6 | 5-1 | 2-4 |
| 3. data | 3-5 | 1-2 | 6-4 |
| 4. data | 6-5 | 2-3 | 4-1 |
| 5. data | 5-2 | 3-4 | 1-6 |

**ZORTZI TALDEKOA**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1. data | 1-3 | 6-5 | 4-7 | 8-2 |
| 2. data | 3-8 | 5-1 | 7-6 | 2-4 |
| 3. data | 3-5 | 1-7 | 6-2 | 8-4 |
| 4. data | 5-8 | 7-3 | 2-1 | 4-6 |
| 5. data | 5-7 | 3-2 | 1-4 | 8-6 |
| 6. data | 8-7 | 2-5 | 4-3 | 6-1 |
| 7. data | 7-2 | 5-4 | 3-6 | 1-8 |

**HAMAR TALDEKOA**

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. data | 1-3 | 8-5 | 6-7 | 4-9 | 10-2 |
| 2. data | 3-10 | 5-1 | 7-8 | 9-6 | 2-4 |
| 3. data | 3-5 | 1-7 | 8-9 | 6-2 | 10-4 |
| 4. data | 5-10 | 7-3 | 9-1 | 2-8 | 4-6 |
| 5. data | 5-7 | 3-9 | 1-2 | 8-4 | 10-6 |
| 6. data | 7-10 | 9-5 | 2-3 | 4-1 | 6-8 |
| 7. data | 7-9 | 5-2 | 3-4 | 1-6 | 10-8 |
| 8. data | 10-9 | 2-7 | 4-5 | 6-3 | 8-1 |
| 9. data | 9-2 | 7-4 | 5-6 | 3-8 | 1-10 |

**HAMABI TALDEKOA**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. data | 1-3 | 10-5 | 8-7 | 6-9 | 4-11 | 12-2 |
| 2. data | 3-12 | 5-1 | 7-10 | 9-8 | 11-6 | 2-4 |
| 3. data | 3-5 | 1-7 | 10-9 | 8-11 | 6-2 | 12-4 |
| 4. data | 5-12 | 7-3 | 9-1 | 11-10 | 2-8 | 4-6 |
| 5. data | 5-7 | 3-9 | 1-11 | 10-2 | 8-4 | 12-6 |
| 6. data | 7-12 | 9-5 | 11-3 | 2-1 | 4-10 | 6-8 |
| 7. data | 7-9 | 5-11 | 3-2 | 1-4 | 10-6 | 12-8 |
| 8. data | 9-12 | 11-7 | 2-5 | 4-3 | 6-1 | 8-10 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 9. data | 9-11 | 7-2 | 5-4 | 3-6 | 1-8 | 12-10 |
| 10. data | 12-11 | 2-9 | 4-7 | 6-5 | 8-3 | 10-1 |
| 11. data | 11-2 | 9-4 | 7-6 | 5-8 | 3-10 | 1-12 |

**HAMALAU TALDEKOA**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. data | 1-3 | 12-5 | 10-7 | 8-9 | 6-11 | 4-13 | 14-2 |
| 2. data | 3-14 | 5-1 | 7-12 | 9-10 | 11-8 | 13-6 | 2-4 |
| 3. data | 3-5 | 1-7 | 12-9 | 10-11 | 8-13 | 6-2 | 14-4 |
| 4. data | 5-14 | 7-3 | 9-1 | 11-12 | 13-10 | 2-8 | 4-6 |
| 5. data | 5-7 | 3-9 | 1-11 | 12-13 | 10-2 | 8-4 | 14-6 |
| 6. data | 7-14 | 9-5 | 11-3 | 13-1 | 2-12 | 4-10 | 6-8 |
| 7. data | 7-9 | 5-11 | 3-13 | 1-2 | 12-4 | 10-6 | 14-8 |
| 8. data | 9-14 | 11-7 | 13-5 | 2-3 | 4-1 | 6-12 | 8-10 |
| 9. data | 9-11 | 7-13 | 5-2 | 3-4 | 1-6 | 12-8 | 14-10 |
| 10. data | 11-14 | 13-9 | 2-7 | 4-5 | 6-3 | 8-1 | 10-12 |
| 11. data | 11-13 | 9-2 | 7-4 | 5-6 | 3-8 | 1-10 | 14-12 |
| 12. data | 14-13 | 2-11 | 4-9 | 6-7 | 8-5 | 10-3 | 12-1 |
| 13. data | 13-2 | 11-4 | 9-6 | 7-8 | 5-10 | 3-12 | 1-14 |

**HAMASEI TALDEKOA**

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. data | 1-3 | 14-5 | 12-7 | 10-9 | 8-11 | 6-13 | 4-15 | 16-2 |
| 2. data | 3-16 | 5-1 | 7-14 | 9-12 | 11-10 | 13-8 | 15-6 | 2-4 |
| 3. data | 3-5 | 1-7 | 14-9 | 12-11 | 10-13 | 8-15 | 6-2 | 16-4 |
| 4. data | 5-16 | 7-3 | 9-1 | 11-14 | 13-12 | 15-10 | 2-8 | 4-6 |
| 5. data | 5-7 | 3-9 | 1-11 | 14-13 | 12-15 | 10-2 | 8-4 | 16-6 |
| 6. data | 7-16 | 9-5 | 11-3 | 13-1 | 15-14 | 2-12 | 4-10 | 6-8 |
| 7. data | 7-9 | 5-11 | 3-13 | 1-15 | 14-2 | 12-4 | 10-6 | 16-8 |
| 8. data | 9-16 | 11-7 | 13-5 | 15-3 | 2-1 | 4-14 | 6-12 | 8-10 |
| 9. data | 9-11 | 7-13 | 5-15 | 3-2 | 1-4 | 14-6 | 12-8 | 16-10 |
| 10. data | 1-16 | 13-9 | 15-7 | 2-5 | 4-3 | 6-1 | 8-14 | 10-12 |
| 11. data | 11-13 | 9-15 | 7-2 | 5-4 | 3-6 | 1-8 | 14-10 | 16-12 |
| 12. data | 13-16 | 15-11 | 2-9 | 4-7 | 6-5 | 8-3 | 10-1 | 12-14 |
| 13. data | 13-15 | 11-2 | 9-4 | 7-6 | 5-8 | 3-10 | 1-12 | 16-14 |
| 14. data | 16-15 | 2-13 | 4-11 | 6-9 | 8-7 | 10-5 | 12-3 | 14-1 |
| 15. data | 15-2 | 13-4 | 11-6 | 9-8 | 7-10 | 5-12 | 3-14 | 1-16 |

## 3. Kapitulua
## SAILKAPEN ARAUTEGIA ETA IRIZPIDEAK

**137. ARTIKULUA.-** Sailkapena talde bakoitzak lortu duen puntu kopuru handienaren arabera finkatuko da, ondorengo puntuazio taula kontuan hartuta:

| | |
|---|---|
| **Partidu irabazia** | 2 puntu |
| **Partidu berdindua** | 1 puntu partidu bakoitzekoa |
| **Partidu galdua** | 0 puntu |

Bi edo talde partaide gehiagorekin kontatzen duen txapelketa bateko sailkapen nagusia finkatzeko orduan, ondorengo arauak jarraituko dira:

a. Lorturiko puntu kopuru handiena.
b. Aldeko eta aurkako golen arteko diferentzia positibo handiena.
c. Aldeko golen kopuru handiena.

Talde bakoitzean partidu kopuru ezberdina jokatu izan denean, behar bezala neurtuko dira talde bakoitzean jokatutako partidu kopuruaren arabera lorturiko datuak. Xede horretarako, kontsideratu beharreko faktorea partidu ofizial jokatuen kopuruagatik zatituko da. Ondorioz, sailkapena finkatuko da, kontsideratu beharreko faktore zehatzari dagokionez partidu bakoitzeko batez besteko handiena lortu duten taldeen arabera.

Aurreikusi gabeko kasuetan, Txapelketa Batzordeak ebatziko du.

Bi edo talde gehiagoren berdinketa hausteko, sailkapen irizpideak ondorengo artikuluetan adierazten direnak izango dira.

**138. ARTIKULUA.- TXANDA BAKARREKO LIGA SISTEMA**

a).- Bi Kluben artean:

1- Bi kluben artean esklusiboki jokatutako partiduaren emaitza.
2- Txapelketan parte hartzen duten Klub guztien arteko golen diferentzia handiena.
3- Klub guztien partaidetzarekin lorturiko golen kopuru handiena.
4- Zatidura orokor onena, berdinketa egin duten Kluben artean lortu diren golen batura aurkako golen baturarekin zatitzean lortzen dena.
5- Zatidura orokor onena, aldeko golen batura aurkako golen artean zatitzean lortzen dena, klub guztien partaidetza dela medio.
6- Berdinketa mantentzen denean, ezohikoa bada ere, arautegiaren araberako luzapenen bidez berdinketa hausteko partidua ospatuko da.

b).- Bi klub baino gehiagoren artean:

1.-Berdinketa egin duten kluben arteko sailkapen partikularrean lorturiko puntuak.
2.-Euren arteko golen diferentzia handiena.
3.-Golen diferentzia handiena, gainerako taldeak direla medio.
4.-Lorturiko gol kopuru handiena, esklusiboki berdinketa egin duten klubak partaide izanik.
5.-Txapelketan esku hartu zuten kluben gol kopuru handiena.
6.-Txapelketako zatidura orokor onena, aldeko golen batura aurkako golen artean zatitzean lortzen dena.

**139. ARTIKULUA.- TXANDA BIKOITZEKO LIGA SISTEMA:**

a).- Bi kluben artean:

1.- Golen diferentzia handiena, bi Klubek euren artean esklusiboki jokatu duten partiduetako emaitzaren arabera.
2.-Txapelketan parte hartzen duten Klub guztien partaidetzarekin lorturiko golen diferentzia handiena.
3.-Klub guztien partaidetzarekin lorturiko gol kopuru handiena.
4.-Zatidura onena, berdinketa egin duten Kluben artean lorturiko aldeko golen batura aurkako golen baturarekin zatitzean lortzen dena.
5.-Zatidura orokor onena, aldeko golen batura aurkako golen baturarekin zatitzean lortzen dena, Klub guztien partaidetza dela medio.
6.-Berdinketa mantentzen denean, ezohikoa bada ere, berdinketa hausteko partidua ospatuko da, joko-eremu neutralean eta arautegiaren araberako luzapenak direla medio.

b).- Bi klub baino gehiagoren artean:

1.-Berdinketa egin duten Kluben arteko sailkapen partikularrean lorturiko puntuak.
2.-Euren artean esklusiboki lortu dituzten golen diferentzia handiena.
3.-Gainerako taldeen partaidetzarekin lorturiko golen diferentzia handiena.
4.-Berdinketa egin duten Kluben partaidetzarekin esklusiboki lorturiko gol kopuru handiena.

5.-Txapelketako Klub guztien artean lorturiko gol kopuru handiena.
6.-Txapelketako zatidura orokor onena, aldeko golen batura aurkako golen baturarekin zatitzean lortzen dena.

Txapelketa bi fasetan banatzen denean eta biak txanda bikoitzarekin jokatzen direnean, bi talde berdin txapelketa berdinean lau aldiz norgehiagokan jardutean, eta amaiera sailkapenean horiek edo gehiagok berdinketa lortzen dutenean, artikulu honetan bertan xedatutako sailkapen irizpideak jarraituko dira, txapelketa honetan bertan euren artean jokatutako partidu guztietako emaitzak kontuan hartuta, hau da: lehenengo faseko biak eta bigarreneko biak, lehenengo euren artean lehiatutako partidu guztietan lorturiko puntuak kontsideratuz.

**140. ARTIKULUA.-** Berdinketa egin duen taldetako bat lerrokadura okerragatik, ez etortzeagatik edo erretiratzeagatik zigortua izango balitz, sailkapena arau-hauslea ez den taldearen alde ebatziko da.
Kanporaketa sistemen arabera (Play-Off) amaiera faserik gabe jokatzen diren txapelketetan, txapelketa honen amaiera sailkapena Play-Off probaren emaitzekin erabakiko da. Taldeak kanporatuak izaten diren neurrian, Ligako fase erregularreko bere sailkapenaren arabera ordenatuko dira.

Ligako Txapelduna aldarrikatuko da Titulua lortzeko AMAIERA PLAY-OFF proba irabazten duena.

**141. ARTIKULUA.- PARTIDU BIKOITZEKO KANPORAKETA SISTEMA**:

Sailkapena ondorengo puntuen baturaren arabera garatuko da:

| | |
|---|---|
| **Partidu irabazia:** | 2 puntu |
| **Partidu berdindua:** | 1 puntu talde bakoitzarentzat |
| **Partidu galdua:** | 0 puntu |

Kanporaketa multzoko puntuen araberako berdinketaren kasuan, ondorengo irizpideak jarraituko dira, jarraian adierazten den ordenaren arabera:

1.-Golen diferentzia.
2.-Etxetik kanpo markatutako gol kopuru handiena.
3.-Berdinketa mantentzen denean, ondorengo irizpidearen arabera erabakiko da: 5 minutuko atsedenaldiaren ondoren eta zozketa berria ospatu ondoren, bost (5) minutuko bi aldiko luzapena jokatuko da, minutu bateko (1) atsedenaldiarekin aldi bakoitzaren artean, partiduaren hasierako emaitza 0 – 0 izanik.
4.-Berdinketa mantentzen denean, zazpi (7) metroko jaurtiketak (penalti) egingo dira, ondorengo artikuluan deskribatzen den IHF formularen arabera.

**142. ARTIKULUA.- PARTIDU BAKARREKO KANPORAKETA SISTEMA:**

Kanporaketa bakoitzeko talde garailea, partiduaren amaiera emaitzaren arabera erabakiko da.

Partiduaren amaiera emaitza berdinketa izaten denean, aurreko artikuluaren 3. atalean deskribatzen denaren arabera jokatu beharko da.

Berdinketa mantentzen denean, zazpi (7) metroko jaurtiketak (penalti) egingo dira, ondorengo formularen arabera:

1.- Zazpi (7) metroko jaurtiketak egiteko, talde bakoitzak partidu amaieran sailkatuen arteko bost jokalari esleituko ditu. Horiek jaurtiketa bat egingo dute txandaka, talde aurkariaren kontra. Jaurtitzaileen esleipena, talde bakoitzeko arduradunak egin beharko du; arbitroa horren jakinaren gainean jarriko da, zerrenda baten bidez zeinetan jokalarien izena eta dortsala adieraziko diren. Taldeek askatasunez erabakiko dute jaurtiketa jardueraren ordena, epaileak aurretiaz horren jakinaren gainean jarri ondoren.

2.- Atezainak ere askatasunez esleituko dira, une horretan kalifikatu direnen artean, ordeztuak izateko aukera izanik.
3.- Epaileek partiduan erabiliko den atea zozkatuko dute. Jaurtiketa sortari bidea emango dion taldea, epaileek eginiko zozketaren bidez esleituko da.

4.- Bost jaurtiketen lehenengo sortaren amaieran berdinketa mantentzen denean, hasierakoa ez bezalakoa izan ahal den bost jokalarirekin osatutako zerrenda berria eratuko da, betiere partidu amaieran kalifikatutako jokalariak kontuan hartuta. Lehenengo jaurtiketa, lehenengo serieko jaurtiketa egin ez duen taldeak egingo du. Garailea aldarrikatuko duen erabakia ondorengo moduan interpretatuko litzateke:
4.1.- Lehen jaurtiketa egiten duen taldeak transformatzea lortzen ez badu, aurkariak gola lortu beharko du, garailea aldarrikatzeko dagokion jaurtiketan.
4.2.- Lehen taldeak bere jaurtiketa transformatzen duenean, bigarren taldeak berea huts egiten duenean, lehenengo taldea garaile aldarrikatuko da.

5.- Bigarren seriearen amaieran berdinketa mantentzen denean, jaurtiketa sortarekin jarraitzea dagokio, garailea esleitu arte, berriro ordena aldatuz.
6.- Zazpi (7) metroko jaurtiketetan ezin izango dute parte hartu partiduaren amaieran edo partiduaren ondoren kanporatuak edo deskalifikatuak izan diren jokalariak.
7.- Joko-eremuaren barruan eta zazpi (7) metroko jaurtiketen jardueran zehar, jaurtiketa bakoitzean arbitroak eta jokalari partaideak soilik aurkitu ahal izango dira.
8.- Zazpi (7) metroko jaurtiketetako kiroltasunaren aurkako portaera zigortu egingo da, salbuespenik gabe, jokalariaren deskalifikazioarekin.
9.- Jokalari bat deskalifikatzen denean edo lesionatu egiten denean, bere ordezkoa esleitu ahal izango da.

**143. ARTIKULUA.-** Liga Titulua lortzeko Play-Off proben eta iraupena mantentzeko, sustapenerako eta kategoriaz jaisteko kanporaketen kasuan, kanporaketako garailea kasu bakoitzean xedatzen den garaipen kopuruaren arabera erabakiko da, betiere lehiatu beharreko partidu kopurua bakoitia izanik, txapelketa bakoitzeko arau berezien arabera.

Liga sistemaren arabera jokatzeko txapelketetan, guztiak guztien aurka sistemaren arabera, bi txanda baino gehiagorekin, talde partaideen arteko berdinketa egoerako sailkapen irizpidea dagozkion oinarrietan adieraziko da.

**143 bis ARTIKULUA.–** Salbuespen gisa, pandemia, osasun-alerta edo antzeko egoeretan egiten diren lehiaketetan, 121. artikuluaren bigarren lerrokadan xedatutakoaren arabera, etendako partidak ez badira gero jokatzen, behin lehiaketa edo haren fase bat amaitu ondoren, eta partida kopuru desberdina jokatu bada talde batean, bitan edo gehiagotan, lortutako datuak behar bezala haztatuko dira, talde bakoitzak jokatutako partida kopurua ikusita. Horretarako, 137. artikuluan eta hurrengoetan azaldutakoaren arabera kontuan hartu beharreko faktorea jokatutako partida ofizialen kopuruaz zatituko da. Horrela, kontuan hartu beharreko faktore zehatzaren partidako batez besteko handiena ematen duten taldeen araberako sailkapena ezarriko da.

Lehiaketa hasitakoan, salbuespenezko zirkunstantziengatik edo ezinbesteko arrazoiengatik behin betiko eten behar bada, honela jokatuko da:

1. Edozein lehiaketa dela ere, igoerak eta/edo jaitsierak egingo dira, baldin eta goragoko edo beheragoko kategoriako lehiaketak ere jarraian jasotzen diren irizpideen arabera egiten badira.
2. Fase bat baino gehiagotan jokatzen diren lehiaketetan, azken sailkapenaren ondorioetarako, benetan jokatutako lehiaketaren zatia bakarrik hartuko da kontuan, eta ezin izango da inola ere kontuan hartu jokatu gabeko zatia. Ondorio horietarako, ez dira kontuan hartuko igoeren/jaitsieren eta sustapenen fase osagarriak.
3. Bi itzuliko liga erregularrak amaitu badira eta igoera- eta/edo iraupen-faseak edo kanporaketa-faseak jokatzen ari badira, igoera eta/edo jaitsieretarako jokatutako partidetan izandako emaitzak hartuko dira kontuan.

4. Talde batean baino gehiagotan jokatzen diren lehiaketetan, baldin eta igotzeko eta/edo jaisteko plazen aurreikuspena baino talde gehiago badaude, artikulu honetan ondoren horretarako ezarritako irizpideak aplikatzearen ondoriozko sailkapenaren arabera esleituko dira.
5. Lehiaketa osoaren ehuneko berrogeita hamar edo gehiago jokatu bada (4rako finalak eta/edo promozio-faseak kontuan hartu gabe), azken sailkapena lehiaketa etetean ezarriko da. Txapeldunak, igoerak eta jaitsierak egongo dira, eta txapelketako oinarrietan erabakitakoak izango dira, sailkapenaren arabera.
6. Lehiaketa osoaren ehuneko berrogeita hamar baino gutxiago jokatu bada, lehiaketa baliogabetzat joko da eta ez da txapeldunik izendatuko, eta ez da igoerarik edo jaitsierarik egingo.

## 4. Kapitulua
## FEDERAZIO ORDEZKARIA

**144. ARTIKULUA-** Partiduetako federazio ordezkaria ofizioz edo Klub lehiakidetako edozeinen eskaerari jarraiki izendatu ahal izango da. Klubek eskatzen dutenean, eskaera Euskal Eskubaloi Federaziora igorri beharko da, dagokion partidua ospatu baino bost (5) egun lehenago. Ordezkari horren partidura etortzeko egin beharreko gastuen ordainketa Klub eskatzaileari dagokio.

Federazio ordezkariaren idatzizko txostena da Txapelketa Batzordeak dagozkion ekintzen inguruan bere egunean hitzartu beharreko ebazpenerako kontuan hartu beharko duen lehentasunezko egiaztagiria.

Federazio ordezkariaren esleipena Txapelketa Batzordeak hitzartu beharko du, beharrezko aurrerapenarekin eta pertsona esleituak bere izendapena idatziz jasoko du, Batzordeko Presidentearen eta Idazkariaren sinadura dakarren agiriarekin.

**145. ARTIKULUA.-** Beste txapelketa ofizial batzuetarako, Euskal Eskubaloi Federazioak federazio ordezkaria izendatuko du.

**146. ARTIKULUA.-** Federazio ordezkariaren funtzioak izango dira, kontzentrazio sistemaren araberako sektore fasetan, finaletan eta txapelketetan, ondoren adierazten direnak:

- Txapelketako agiri ofizialen harrera (izendapena, arautegia, egutegi ofiziala, txostenen inprimaki ofizialak, etab.)
- Jokalarien eta/edo ofizialen federazio lizentziak berrikustea, baita txapelketa Oinarrien arabera aurkeztu beharko dituzten agiriak ere.
- Jokalariek eta ofizialek parte hartuko duten edo ez erabakitzea, txapelketaren arautegi zehatzaren arabera eta aurkeztu dokumentazioaren arabera.
- Txapelketaren bilera teknikoa zuzentzea, neurri zehatzak hartuz, kasu bakoitzean planteatzen diren arazoak eta arautegi berezia kontuan hartuta.
- Talde bakoitzak txapelketan zehar erabiliko duen kirol jantziaren inprimakia eratzea, euren artean ados jarri direnean edota aurkako kasuan arautegia aplikatzea.
- Kirol instalazioak (joko-eremua, aldagelak, sarbideak, etab.) berrikustea eta gabeziak eta/edo beharrak adieraztea, konponduak izan daitezen.
- Egunero partidu bakoitzerako esleipenak egitea, betiere Epaileen Batzorde Teknikoak aldez aurretik hori zehaztu ez duenean.
- Partiduetako epaileek aurkeztu ahal duten lehiaketa edo antolaketa arloko balizko kontsultak artatzea eta ebaztea.
- Dagozkion erabakiak hartzea, sortu ahal daitezkeen balizko programazio aldaketen inguruan, edozein kasutan indarrean dagoen programazioa kontuan hartuta.
- Partidu guztiak zuzenean ikustea, gehienbat ohar-hartzaile eta kronometratzaileen mahaitik, horiekin kolaboratuz eta dagokion inpartzialtasuna hala nola arautegia betetzen dela zainduz.
- Eguneroko sailkapen ofizialak elaboratzea eta horietako taldeak hala nola txapelketako Lurralde Federazioko egoitza informatzea.

- Euskadiko Eskubaloi Federazioari jakinaraztea (telefonoa, faxa) jardunaldi bakoitzeko emaitzak eta eguneroko sailkapena, partiduak amaitu bezain laster.
- Egunero partidu bakoitzeko akta ofizialak jasotzea (Txapelketa Batzordean originala, Epaileen Batzorde Teknikoan kopia) Euskadiko Euskal Federazioari entregatzeko, txapelketa amaitzen den hurrengo egunean.
- Ordezkaritzaren bidez jardutea, Txapelketa Batzordeak beste pertsona bat izendatzen ez duenean, Arautegi hau, Diziplinazko Erregimen Arautegia eta indarrean dauden gainerako arauak jarraituz, kasu bakoitzean dagozkion neurriak hartuta, akta eratu behar izanik hitzarmen eta zigor zehatzak adierazi ahal izateko, zeinen fotokopiarekin kontatuko duten talde partaide guztiek, bileraren hurrengo egunean.
- Ospatzen diren jarduera ofizial guztietan Euskal Eskubaloi Federazioa ordezkatzea, Zuzendaritza Batzordeak funtzio horietarako zuzendari bat izendatzean edota txapelketara Presidentea edo Euskal Eskubaloi Federazioko Presidenteordetako bat txapelketara etortzean izan ezik.
- Egunero txosten arbitralak eratzea edo misio hau txapelketako egoitza den Epaileen Lurralde Batzordeko Presidenteari edota funtzio honen garapenerako pertsona prestatuari agintzea, Epaileen Batzorde Teknikoak zeregin hori betetzeko beste norbait esleitzen ez duenean.
- Jokalari aipagarrien inguruko txosten teknikoa eratzea edota misio hau txapelketa egoitzako Zuzendari Teknikariari edota funtzio honen garapenerako pertsona prestatuari agintzea, Euskadiko Eskubaloi Federazioko Batzorde Teknikoak zeregin hori betetzeko beste pertsona bat esleitzen ez duenean.
- Dokumentazio guztia Euskal Eskubaloi Federaziora presazko prozeduraren bidez igortzea edo entregatzea, txapelketa amaitzen denean.
  * Partiduetako akta originalak (LEHIAKETA BATZORDEA).
  * Eguneroko sailkapenak eta amaiera sailkapena (LEHIAKETEN ARLOA).
  * Jokalari aipagarrien txosten teknikoa (BATZORDE TEKNIKOA).
  * Txapelketa Batzordeko bileretako akta originalak (LEHIAKETA eta KIROL-DIZIPLINA BATZORDEA).
- Txapelketaren garapenerako idatzizko txostena eratzea, jardueran zehar sortu diren balizko gertaerak azaltzeko.
- Txapelketa Batzordea informatzea dagozkion auzi zehatzen inguruan, aipatu organoak hala eskatzen duenean.

**147. ARTIKULUA.-** Federazio ordezkariaren funtzioak izango dira (partidu bakarra), ondoren zehazten direnak:

- Dokumentazio ofizialaren harrera (partaideen zerrenda, izendapen ofiziala, etab.)
- Kirol instalazioa (joko-eremua, aldagelak, sarbideak, etab.) berrikustea eta gabeziak eta/edo beharrak adieraztea, konponduak izan daitezen.
- Azken erabakia hartzea, jokalariek eta ofizialek parte hartuko duten edo ez erabakitzeko, txapelketako Arautegi bereziaren arabera eta aurkeztu dokumentazioaren arabera. Edozein kasutan, Txapelketa Arloko zerrenda ofizialak kontua hartuta.
- Partidu guztiak zuzenean ikustea, gehienbat ohar-hartzaile eta kronometratzaileen mahaitik, horiekin kolaboratuz eta dagokion inpartzialtasuna hala nola arautegia betetzen dela zainduz.
- Dagozkion erabakiak hartzea, sortu ahal daitezkeen balizko arazo teknikoen inguruan.
- Euskal Eskubaloi Federazioari jakinaraztea (telefonoa, fax edo telex) partiduaren emaitza eta gertaera aipagarriak, jazotzen direnean, partidua amaitu eta berehala.
- Partiduaren garapenaren inguruko idatzizko txosten zehatza eratzea, sortu diren gertaerak zehaztasunez azalduz eta txosten hori Txapelketa Batzordeari helaraztea.
- Txapelketa Batzordeari informatzea partiduaren garapenarekin loturiko jardueren inguruan, aipatu organoak hala eskatuko balu.
- Zeregin horretan Euskal Eskubaloi Federazioa ordezkatzea, Zuzendaritza Batzordeak funtzio horietarako zuzendari bat izendatzean edota txapelketara Presidentea edo Euskal Eskubaloi Federazioko Presidenteordetako bat txapelketara etortzean izan ezik.
- Partiduko epaileek planteatu ahal dituzten txapelketa edo antolamendu arloko balizko kontsultak artatzea eta ebaztea.
- Igortzea, presazko prozeduraren bidez, dagozkion gastuen egiaztagiriak.

## 5. Kapitulua
## TXAPELKETETAKO BEREZITASUNAK

**148. ARTIKULUA.-** Autonomia txapelketetako sektore faseen edo finalaren klub antolatzaileak partiduen banaketa taula aldatu ahal izango dute, jokatu beharrekoak jardunaldi bakoitzaren amaierarako utzi ahal izanik, finaleko partidua izaten denean izan ezik.

Sektore fasetan, fase finaletan, igoera fasetan hala nola kontzentrazio sistemaren arabera jokatzen diren txapelketa haietan, klubenak zein lurralde selekzioenak, ospakizuna antolatzen duen Kluba edo Selekzioa betiere joko-eremuko markagailuan lehiatzen dituen partiduetako talde lokala bezala azalduko da.

**149. ARTIKULUA.-** Debekatuta dago kadete eta beheragoko kategorietan substantzia itsasgarriak edo kolak erabiltzea.

**150. ARTIKULUA.-** Sektore fasetako edo finaletako arbitrajearen eta federazio ordezkariaren gastuak Erakunde antolatzaileak hartuko ditu bere gain, txapelketa bakoitzeko arau berezietan bestelako adierazpen batzuen bidez xedatzen denean izan ezik.

**151. ARTIKULUA.-** Lurralde selekzio txapelketetako partaideak, bere arautegiko txapelketa formulan eta dagozkion oinarrietan xedatzen diren taldeak izango dira.

# XI. IZENBURUA
# PARTIDUETAKO JARDUERA ARBITRALAREN ARAUTEGIA

## 1. Kapitulua
## EPAILEEN AGINTARITZA

**152. ARTIKULUA.-** Partiduetan zehar, epaileen erabakiak apelaezinak dira; jokalariak, zuzendaritza ofizialak eta ikusleak horiek bere erabakietan babestera behartuta daude, kiroletik kanpoko protestarik eta eztabaidarik gabe.

**153. ARTIKULUA.-** Epaileen eskumenekoak dira, Joko Arau Ofizialaren Arautegian xedatua, I.H.F. Nazioarteko Eskubaloi Federazioan adierazia eta Arautegi honetan agindua, baita txapelketa bakoitzeko arautegi berezietan xeda zitezkeenak ere.

**154. ARTIKULUA.-** Jarduneko epaileak, euren kategoria edozein dela ere, inskribatu ziren Lurralde Federazioaren mendean daude, Arbitro Batzordeak esleitu ahal dizkien izendapenak alde batera utzita, estatu edo autonomia txapelketetan zeinetan kategoria hori izango duten, guztiak bere Autonomia eta Lurralde Federazioko txapelketetan kolaboratzera behartuta daude.

a) Ondorioz, ezin izango dute jarduera izendapen bat errefusatu, ezinbesteko arrazoiengatik izan ezik, hori zuzenbidearen arabera egiaztatu behar izanik; zirkunstantzia hori berehala jakinarazi beharko diote bere Lurralde Batzordeari edo Arbitro Batzordeari, izendapena hurrenez hurren lurralde edo autonomia txapelketen arlokoa balitz.

b) Arbitroaren uko-egitea edo arbitratzeko ezintasuna beranduegi jakinaraziko balitz, hura ordeztea ezinezkoa gertatzeko moduan, eskumeneko Batzordeak ahalegin guztiak egingo ditu ordezkoa izendatzeko, horietako bakoitzaren kategoria zein den alde batera utzita.

c) Edozein zirkunstantzia dela medio, dagokion Batzordeak epaileen izendapenak egingo ez balitu edo izendatuak etorriko ez balira edo euren jarduera ezinezkoa izaten denean, jarraian adierazten den bezala jokatu beharko da:

1.- Esleitu bikotetik bakarra aurkezten denean, eta kategoria bereko epailea presente dagoenean, bere bikotea osatzeko enkantea eskatuko da; hark nahi ez duenean edota inor presente ez dagoenean, partidura etorri den esleituak zuzenduko du.

Halaber goragoko edo beheragoko kategoriako arbitro baten enkantea onartu ahal izango da, Klub bien artean aurretiko hitzarmena indarrean dagoenean. Hitzarmenik ez dagoenean berriz, aurkeztu den epailea soilik arituko da jardunean.

2.- Esleitu arbitroetatik bakar bat ere aurkezten ez denean, eta partiduaren kategoriako epailerik presente ez dagoenean, partidua eten egingo da, partidua zuzendu ahal duten pertsonen inguruan Klub lehiakideen aurretiko hitzarmena indarrean dagoenean izan ezik, pertsonaren jardueraren inguruan inolako erreklamaziorik aurkeztu ezin ahal izateko ohartarazpena dela medio. Kluben arteko aurretiko hitzarmena idatziz formalizatu beharko da, partidua hasi aurretik, partiduan talde bietako ordezkarien eta kapitainen sinadura jasotzeko aginduaren arabera.

Partiduaren etenaldia agintzen denean, lekualdatzearen eta joko-eremuaren inguruko gastuen ordainketa norgehiagoka hori antolatu duen Federazioaren esku egongo da.

d) Partidu batean zehar epailea bat-batean gaixotzen denean, beste batek amaituko du haren jarduera. Bi epaileak gaixotuko balira, artikulu honetako aurreko ataleko 1 eta 2. puntuan xedatuaren arabera jokatu beharko litzateke.

**155. ARTIKULUA.-** Partidu bateko arbitroaren partzialtasun usteak ez diete eskubiderik emango Klub bateko jokalariei eta ofizialei protestatzeko edota joko-eremuko haren ebazpenak eztabaidatzeko. Eskumeneko kirol agintariari dagokio ebazpen egokienaren inguruko espedientea irekitzea.

## 2. Kapitulua
## PARTIDUEN ZUZENDARITZA

**156. ARTIKULUA.-** Talde arbitrala partiduak zuzendu behar dituzten epaileekin eta bere laguntzaileekin (ohar-hartzailea eta kronometratzailea) eratuko da.

Talde arbitral hori joko-eremura etorri beharko da, esleipenaren arabera dagokion partidua hasi baino ordu bete lehenago gutxienez, bertako ikuskaritza egitea eta talde lehiakideen lerrokadurak egiaztatzea beharrezkoa izanik.

**157. ARTIKULUA.-** Autonomia esparruko lagunarteko partiduak edo partidu ofizialak zuzendu behar dituzten epaileen izendapenak Euskal Eskubaloi Federazioko Epaileen Batzorde Teknikoak izendatuko ditu. Xede horretarako argitaratuko da partidu bakoitza zuzentzeko esleituen arteko kategoria bakoitzeko Jokalari-Talde Ofiziala.
Adierazi esleipenik edo izendapenik gabe, jarduneko arbitro bakar batek ere ezin ahal izango du eskubaloi partidurik zuzendu, Arautegian kontenplatzen diren ezinbesteko kasuetan izan ezik.

**158. ARTIKULUA.-** Kronometratzailea eta Ohar-hartzailea partiduaren ospakizunari dagokion joko-eremuko Lurralde Federaziokoak dira, dagokien Epaileen Lurralde Batzorde Teknikoak esleituko dituelarik beraieri dagozkien txapelketetan eta Euskal Federazioko Epaileen Batzordeak esleituko ditu autonomi, estatu eta nazioarteko mailako txapelketetan.

**159. ARTIKULUA.-** Partiduetako epaileek HALABEHARREZKO BETEBEHARRA dute, partiduetako Akta helarazteko Euskadiko Euskal Federaziora ahalik eta azkarren, prozedura ahalik eta arinena dela medio; ondorioz, partidua amaitu bezain azkar akta PRESAZKO POSTAZ igorri beharko dute, partidua ospatu osteko hurrengo lanegunaren goizeko 12ak baino lehenago; edo bestela hurrengo egunean zuzenean Federazioko lokaletara eraman dezakete.

Prentsa, Irrati eta Telebista hedapen zereginerako, epaileek HALABEHARREZKO BETEBEHARRA dute zuzendu duten partiduaren amaiera emaitza jakinarazteko SMS bidez, eta horrela ezinezkoa izaten denean, amaiera emaitza hori telefonoz edota Euskadiko Eskubaloi Federaziora igorritako fax bidez jakinarazi ahal izango dute.

Partidu bateko epaileek bere Akta igortzen ez dutenean, denboran eta forman, edota partiduaren emaitza telefonoz jakinarazten ez dutenean, halabeharrez dagokionari jarraiki, Txapelketa Batzordeari horren berri eman beharko zaio, Diziplinazko Erregimen Arautegiaren arabera bidezkoa dena erabaki dezan.

## 3. Artikulua
## AKTAK, TXOSTENAK ETA PROTESTAK

**160. ARTIKULUA.-** Ospatzen diren txapelketako edo txapelketa ofizialeko partidu guztietan, epaileek partiduko akta idatzi beharko dute, bere sinadurarekin eta derrigorrez aktan azalduko diren talde bakoitzeko ofizial arduradunen sinadurarekin. Aktak inprimaki ofizialean idatziko dira eta partidua hasi baino lehen sinatuko dira, joko-eremura etorri diren jokalarien eta ofizialen erlazioa ezagutzen denean; bestalde, partidua amaitzean talde bakoitzeko ofizial arduradunek ere sinatu ahal izango dituzte, partiduan zehar gertaerak jazo izan direnean.

Partiduaren Akta eratu aurretik eta talde bakoitzak jokalarien erlazioa aurkezteko unean, Epaileek eskatuko diote talde arduradun bakoitzari adierazi dezan zein kargu beteko duten partiduan zehar "Taldeko Ofizialaren" lizentziak erabilgarri dituzten pertsonek, partiduaren Akta horretan horren berri emanez.

Jokalariren eta ofizialen baten edo batzuen lizentziak indarrean daudela egiaztatzeko beharrezko eskakizunak betetzen diren edo ez egiaztatzeko orduan epaileek zalantzak izaten dituztenean, hala adieraziko dute aktan, eraginen izenak eta abizenak hala nola bere Nortasun Agiri Nazionala edo Pasaportea eta jarraian euren sinadura bertan jasota geratuz.

Jokalarien eta ofizialen fitxarik aurkezten ez denean, era berean aurreko izapideak bete beharko dira, interesdunaren edo interesdunen aurretiko identifikazioa dela medio; horiek, derrigorrez, Nortasun Agiri Nazionala edo Pasaportea aurkeztu beharko dute, bere zenbakia jasota geratuz partiduaren aktan; baita lizentziaren izapidea ziurtatuko duen Federazioko agiri ofiziala ere, dagokion taldeak eskuragarri izaten duenean, eskakizun hori bete gabe lerrokatzeko baimenik ez du izango.

Dagokion baimenik gabe lerrokatzen den jokalaria eta/edo Ofiziala, ez da behar bezalako partaidea dela kontsideratuko.

**161. ARTIKULUA.-** Era berean, epaileek aktetan gainetik baina argi eta garbi idatziz jasoko dute partiduan zehar jazotzen den gertaera oro; partiduaren garapenarekin loturiko guztia, bereziki aginte arbitralaren aurkako falten ingurukoa, jokalarien artean edo horien aurka jazotako erasoak edota isekak, hartutako erabakiak, denbora eta luzapen deskontuak, etab., ekintzak laburki deskribatuz baina horiek kalifikatzea saihestuz. Jokalarien arteko eraso kasuetan, ekimena norengandik abiatu den adieraztea dagokio, erasoa eta kontsideratu beharreko falta bereiztea zainduz. Epaileek egiaztatu gabeko jokalarien faltak hautematen dituzten laguntzaileei dagokie berehala arbitroak falta horien inguruan informatzea.

**162. ARTIKULUA.-** Aurreko paragrafoan adierazi gertaerak lagunarteko partidu batean jazoko balira, epaileek txapelketa ofiziala izango balitz bezala jokatuko lukete.

Partidu ofizial batean arbitroak ohartuko balira ikusleak edo talde bateko zaleak larriki modu okerrean portatzen ari direla edota talde horietako baten onura lortzearren erabat ageriko indarkeria eragin dutela; joko-eremuan arautegiaren araberako akatsak aurkitzen badira, jokalarientzat arriskua ekarriko dutenak; epaileen aldagelan akatsak antzematen badira; zuzendariek errespetatu ez dituztenak, eta beharrezkoa denean, euren agintaritza babesteagatik, laguntzaileek dagokien leialtasuna edo inpartzialtasuna erakutsi ez dutenean; edo bestelako gertaera analogo baten aurrean, aktan horren berri emango dute, edo behar

adinako gunea erabilgarri ez dagoenean, jardueren inguruko sumario aipamena egingo dute, eranskinaren bidez zein aktarekin batera Federaziora helarazi beharko duten, Arautegi honetan adierazten diren xedapenen arabera.

Ondorioz, akta, eta bere kasuan epaileen eranskina, oinarri funtsezkoenetakoak lirateke, Txapelketa Batzordeak hartu behar dituen erabakien beharrezko baliabide dokumental modura.

Idatziz formulatzen diren federazio epaileen eta ordezkarien adierazpenak egiatzat hartzen dira, eskumeneko organoen ageriko akats materialaren edo akats egiaztatuaren kasuan izan ezik.

Ezinbestekoa da xedatua zorrozki konplitzea, epaileek dokumentu horiek idazteko orduan eta, ondorioz, hauek, artikulu honetan eta aurrekoan adieraziaren arabera jakinarazi beharreko ekintzak akta horietan idazteari uzten diotenean, eta kontsideratuko balitz, dagozkien Batzordeen arabera, horien adierazpena beharrezkoa zela edota joko-eremuan zegokion modura zigortuak izan ez zirela, epaileak zigortuak izango dira, Diziplinazko Erregimen Arautegian xedatuari jarraiki.

Era berean, epaileek partiduko Aktan beheragoko kategorien lizentziak aurkezten dituen talde bakoitzeko jokalarien zenbaki dortsala idatziko dute, dagokien taldearen kategoria, bere N.A.N. zenbakia eta jokalari bakoitzaren jaiotza-data adieraztea ahaztu gabe; era berean, aktan idatzi beharko dute N.A.N. zenbakia eta partiduari ez dagokion kategoriako fitxa aurkezten duten “Taldetako Ofizial”, “Prestatzaile” edo “Prestatzailearen Laguntzaile” haien kategoria eta lizentzia mota ere.

**163. ARTIKULUA.-** Txapelketa partiduetan, jatorrizko akta eta honen hiru kopia aurkeztuko dira. Jatorrizkoa Euskadiko Eskubaloi Federazioko Txapelketa Batzordera helaraziko da; lehenengo kopia Epaileen Batzorde Teknikoarengana, bigarren kopia lehendabizi aipatu taldearengana eta hirugarrena berriz, bigarren postuan aipatu taldearengana.

**164. ARTIKULUA.-** Epaileek partidu amaieran Klubengana helaraziko dute aktaren kopia, betiere bertan idatzitako gertaerak edota bere baitan jasan dituztenak betebehar horretatik libre geratzea justifikatzen ez dutenean, eta gainerakoak dagozkien xedeetara igorriko dituzte PRESAZKO prozedura dela medio, arautegi honetan xedatuaren arabera, partidua amaitu ondoren, edo bestela zuzenean Federaziora, hurrengo hogeita lau (24) orduren buruan. Akta horietatik igorriko ditu, dagokion pertsonak, federazio agintariek eskatzen duten bezainbat kopia. Justifikatutako arrazoiak direla-eta epaileek partidu amaieran aktak entregatzen ez dituztenean, aktak horiek egun berean klub interesdunengana helarazi beharko dituzte.

Epe berean, epaileek Aktatik aparte formulatzen duten eranskin edo hedapen guztien kopia helaraziko dute Euskal Eskubaloi Federazioarengana eta talde interesdunengana.

Hala ere eta Akta, Eranskina eta/edo txosten hedagarria Klub interesdunengana helaraztea ezinezkoa izatea eskumeneko organoaren aurrean behar bezala justifikatzen denean, epaileek kopia bat aurreratuko dute, Klub lehiakideengana igorritako fax bidez, eta kopia horren jatorrizkoak ahalik eta azkarren eta gehienez hogeita lau (24) orduko epean igorriko dituzte. Horretarako, Klub partaide bakoitzaren korrespondentzia datuak beti erabilgarri izango dituzte, arbitratu beharreko partiduan.

**165. ARTIKULUA.-** Taldetako ofizial arduradunek eskubidea dute aktan protestak edo salaketak formulatzeko jokalarien lege egoerari buruz, joko-eremuaren egoera txarrari buruz, bere marraketari buruz, ikusleen jarrerari buruz, etab., epaileen bidez, zeinek garbi eta labur horren inguruan idatziko duten; erreklamazioa egiten dutenek eginbide horien oinean sinatuko dute, hurrengo artikuluetan aurreikusia izan ezik.

**166. ARTIKULUA.-** Klubak egokitzat jotzen duenean, jazo zitezkeen gertaeren inguruko txostena altxatzea, bere erreklamazioak aktan berrestea edo talde aurkariaren erreklamazioak erantzutea, hala badagokio, erabaki dezake, Txapelketa eta Kirol Diziplinazko Batzordeari igorritako idatziaren bidez, partiduaren ondorengo berrogeita zortzi (48) orduren barruan, zeinetan objektibotasunez eta termino erabat

zuzenen bidez adieraziko diren edonolako akatsak edo gabeziak, epaileek egin ahal izan dituztenak, hedatuz, beharrezkoa balitz, partiduan zehar eraginiko gertaeren xehetasunak.

**166. BIS ARTIKULUA.-** Euskal Ligako partiduetan entrenatzaileek arbitraje-txostena egin behar dute.

**167. ARTIKULUA.-** Kluben erreklamazioak, partiduetako gertaeren ingurukoak, zeinetan partaidetza zuzena ez zuten izango, Txapelketa eta Kirol Diziplinazko Batzordera helaraziko dira, protestaren idatziarekin loturiko partiduaren data ondorengo zazpi (7) egunen barruan **.**

Finkatu epea iraungitzean, ezinezkoa izango da protesta edo salaketa berririk aurkeztu, ezta aktako edo epaileen txosteneko edota erreklamazioa egin duen Klubak halabeharrez formulatu duen hedapenean jasotako geratzen ez diren beste jarduera batzuk aipatu ere.

## XII. IZENBURUA
## NAZIOARTEKO PARTIDUAK ETA AUTONOMIA TALDEA

**168. ARTIKULUA.-** Betiere denboraldiko egutegiak finkatzeko orduan nazioarteko partiduen datak ezagutzen direnean, horiek egutegian ezarriko dira; baina data horiek aurretiaz adierazi gabe egongo balira, aldi baterako erreserbatuko lirateke egutegietan neurri batean balizkoak izango liratekeen haiek, entrenamenduetan beharrezkoak kontsideratzen direnak barne.

**169. ARTIKULUA.-** Aurreko artikuluan adierazi egutegiko datak alde batera utzita, Euskadiko Euskal Federazioak bere Batzorde Teknikoak beharrezkotzat jotzen dituen lanegunak erabili ahal izango ditu, aipatu aginduan aurreikusi aurrerapen berdinarekin iragarriko dituenak, ikuskaritzak, kontzentrazioak, prestatzeko probak eta taldeen araberako entrenamenduak edo jokalari hautatuen multzoko partiduak egiaztatzeko.

**170. ARTIKULUA.-**Klub federatu guztiek bere joko-eremuak Euskadiko Euskal Federazioari ematera behartuta daude, honek Euskadiko Taldearen partiduetarako, prestaketa jardueretarako edo entrenamendurako edota berak ofizialki antolatutako antzeko beste batzuetarako joko-eremuak behar izaten dituenean, beste inolako konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik gabe, instalazioen erabilerari dagozkion gastuen zenbatekoak suposatzen duena baino, hau da, langileak, zerbitzuak, etab.

Euskadiko Selekzioaren edozein partidutan, pertsonen sarbide librea mugatu ahal izango da joko-eremuetako instalaziotan, Erakunde antolatzailearen eta Euskadiko Eskubaloi federazioaren artean sinatu hitzarmenaren arabera.

**171. ARTIKULUA.-** Indarrean dagoen lizentziaren jabe diren Arbitro guztiak, esleipenaren arabera dagozkien Euskadiko Selekziotako lagunarteko edo entrenamendu partidu ofizialetan parte hartzera behartuta daude.

Izaera Ofizialeko partiduetan, arbitratze gastuen baldintzak Euskadiko Eskubaloi Federazioak hitzartuko ditu.

Euskadiko Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen lagunarteko edo entrenamendu partiduetan, ez da kontenplatuko Arbitraje Eskubideen kontzeptua, bai ordea lekualdatze gastuena.

## XIII. IZENBURUA
## GATAZKEN JUDIZIOZ KANPOKO EBAZPENA

**172. ARTIKULUA.-** Federazioaren eta bere federatuen edo kideen artean planteatu litezkeen diferentziak edo auzi eztabaidagarriak Zuzenbidearen araberako arbitrajearen bidez ebatziko dira, indarrean dagoen legerian, Euskadiko Eskubaloi Federazioaren Estatutuetan eta garapeneko Arautegian xedatu irizpideen arabera.

**173. ARTIKULUA.-** Arbitrajearen edo, oro har, gatazken judizioz kanpoko ebazpenaren bidez eztabaidatu ahal diren diferentziak edo auziak, Kirol Arbitrajearen Euskal Auzitegiaren eskumenekoak izango dira.

**174. ARTIKULUA.-** Federazioko kideak, lizentzia eskuratu eta hilabeteko epean espresuki uko egiten ez dutenak, Federazio Estatutuetan eta garapeneko Arautegian aurreikusi arbitraje sistemaren eta gatazken judizioz kanpoko ebazpenaren mendean aurkituko dira.

## XIV. IZENBURUA
## DOPINAREN KONTROLA

**175. ARTIKULUA.-** Euskadiko Euskal Federazioa, farmazia substantzia eta metodo debekatuen eta kiroleko arautegiaren kontrako metodoen prebentzio, kontrol eta errepresio arloetako arduradun nagusi bezala, Euskadiko Kiroleko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen V. Kapituluan xedatuaren eta arautuaren arabera jardungo da.

## AMAIERA XEDAPENA

Arautegi hau, Eusko Jaurlaritzako kirolen arloko eskumeneko Zuzendaritzak behin-betiko jakinarazpena luzatzen duenetik ondorengo denboraldi ofizialean jarriko da indarrean.

## EBAZPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta eta baliorik gabe geratuko dira Arautegi honetan xedatuaren aurka dauden maila bereko ala beheragoko xedapen guztiak.

************************

EUSKAL ESKUBALOI FEDERAZIOA
FEDERACION VASCA DE BALONMANO

Sergio Barcenilla
Euskal Eskubaloi Federazioko presidentea

Josune Yagüe
Euskal Eskubaloi Federazioko idazkaria